

Leire
TELLETXEA

«Txakurkrosa
probatzera animatu
nahi dut jendea» → 3

Inauteriak → 17-24

Leitza, Zubieta, Aurtitz, Ituren,
Sunbilla eta Arantza

BERA → 11

Bertsotrama izanen da
hilaren 18an Kultur Etxean

DONEZTEBE → 26

Adintuen bidaiei buruzko
solasaldia urtarrilaren 17an

LEITZA → 33

Udalak 2,41 milioi euroko
aurrekontua onartu du

BAZTAN → 36

Baztandarren Biltzarra
mende erdia ospatzen

Joseba IRAZOKI | musikaria



ELKARRIZKETA → 3

Bakarka edo taldean, gauza berriak probatu zalea

Baliabide ugariko musikaria eta sortzaile nekaezina, atsegin du proiektu batetik bestera salto egitea. *Oso band* proiektua aurkeztu zuen iaz, gizon orkestra estiloan. Orain, kantautore lanari berriz heldu eta disko luzea grabatzea du buruan.

Eta bitartean, beste hainbat musikari ezagunekin batera, *Joseba Irazoki & lagunak* egitasmoan ari da lanean. Urtarrilaren 25ean kontzertua eskainiko dute Berako Kultur Etxean.

ARGAZKIA:
JUAN FOTERO DEL PANICO

EUSKOA → MONETA «EUSKALDUNA, EKOLOGIKOA ETA SOLIDARIOA»

Bertako ekonomia indartzeko, bertako moneta sortu dute Ipar Euskal Herrian

Europan gaindi dauden antzeko esperientziei erreparatuz, Euskal Moneta Elkarateak *euskoa* sortu berri du. Eusko batek euro bateko balioa izanen du eta oraingoz 1, 2, 5, 10 eta 20 eusko-

ko 126.000 billete inprimatu dituzte. Billeteen egiazkotasuna segurtatzeko, Frantziako Bankoak jartzen dituen ezaugarri teknikoak izanen dituzte. **ERREPORTAJEA** → 4-5

ZOKKETAK → 52



Txartela egiteko
deitu **948 63 54 58**
telefonora



ttipi-ttapa
fundazioak

www.cajanavarra.com

Proiektu zk: 50063

Nafarroari eroldatutako
18 urtetik gorako
guztiek parte har
dozakete

zure laguntza behar du

ZUK
AUKERATU
ZUK ERABAKI 2013



comunal
diputatuak

C.A.P. ZENTROA

HOMOLOGATUA
HASIERAKOA-JARRAIA
MERKANTZIAK
BIDAIARIAK



TRANSPORTISTA

TITULUA lortzeko
11. Ikastaroa hasiko dugu

Araudia aldatu baino lehen
azken aukera izanen duzu.
APROBETXATU!

Azterketa: MAIATZA bukaeran

Ikastaro intentsiboak:

- Asteburuetan 8 orduz
- Astegunez egunero 3 orduz

Klaseetara joanez gero,
aprobatu kopuru handia

T. 680 11 06 51 (Migeltxo) · 948 26 13 15 (CAP zentroa)

TRAUTS ZIAZU BIDIA, XABIER

BERTSOTRAMA

Xabier Silveira, Julen Zelaleta,
Oinintza Enbelta eta Jon Mala.
Tramagileak:
Garazi Taberna eta Paski Castillo.

Eguna: Urtarrilaren 18a

Ordua: 22:00ak

Lekua: Berako Kultur Etxea

Sarrera: 5 €



Antolatzailea



Laguntzaileak



Baliabide ugariko musikaria eta sortzaile nekazina. Bakarka edota taldean, makina bat proiektutan aritu izan da musikari beratarra. Bakarkako bidean *Oso band* proiektua aur-

keztu zuen pasa den urtean. Belarriak eta begiak gozaraztea helburu, eszenatokira igo eta kitarra, perkusioak, armonika... aldi berean jotzen baititu. Urte berria ere indartsu hasi-

ko du. Lagun musikari batzuekin bildu eta diska bat grabatzeko asmoa du buruan. Bidean kontzertuak eskainiko dituzte, eskualdean lehena Beran izanen da hilaren 25ean.

Joseba IRAZOKI | Berako musikaria

«Proiektu batean ari naizenean besteren bat izaten dut beti buruan»

E. IRAOLA

Proiektu ugaritan parte hartu izan duzu, zertan zabilta orain?

Une honetan On Benito taldeko partaidea naiz eta Athom Rumba bilbotarrekin ere aritzen naiz lanean, gitarra jotzen dut. Baina azken aldian, bakarko proiektu batean aritu naiz gehienbat. *Oso band proiektuan*. Egia erran, geldirik egoten ez dakien pertsona horietakoa naiz. Proiektu batean ari naizenean besteren bat izaten dut beti buruan.

Oso band proiektua zer da?

Nire ustez gehienbat, zuzenekoetara bideratutako proiektu bat da. *One man band* estilokan, gizon orkestra gisara aritzen naiz. Eszenatokira igo eta instrumentu desberdinak aldi berean jotzen ditut. Musika banda bateko instrumentu guztiak pertsona bakarrak jotzen dituenek deitzen zaio gizon orkestra. Diska bat kaleratu nuen Durangoko azokan Bide Huts zigiluarekin. Proiektua ezagutzera emateko beharrezkoa zela ikusi nuen. Erran bezala, proiektua berez, gehiago ikusten dut zuzeneko zerbait bezala, horregatik erabaki nuen lan luze bat argitaratu beharrean aski izanen zela lau kantez osatutako diska bat kaleratzea.



JUAN FOTERO DEL PANICO

Joseba Irazoki, *Oso band*-en emanaldi batean, gitarra, bonbo eta perkusioa batera joz.

Pixkanaka zabaltzen don proiektua da eta orain arte aditu dutenek kritika onak egin dituzte. **Zein instrumentu jotzen dituzu zuk?**

Gitarra beti izaten dut soinean eta horretaz gain, bonboa jotzen dut normalean. Perkusioren bat ere izaten dut eskuineko eskuan. Azken aldian abestu ere egiten dut eta batzuetan armonika eta kantaren batean txistua ere sartu izan dut, rock estiloko abestiak jotzen ditudan arren. Teklatu txikiaren bat ere erabiltzen dut gitarraren gainean. Zarata egiteko traman-kulu ugari...

ABIAPUNTUA

«Negu partean kontzertu guttiago izanen nituela ikusten nuen eta horri nolabait irtenbidea eman behar nion. Gauza berriak probatu zalea naiz eta beti izan dut burutan horrelako zerbait egitea. Proba egin, gustatu eta proiektua aurrera eramaten hasi nintzen».

Nola bururatu zitazun proiektua?

Bururatu baino gehiago behar kontu bat izan zen. Musika dut diru iturri bakarra. Negu partean kontzertu guttiago izanen nituela ikusten nuen eta horri nolabait irtenbidea eman behar nion. Gauza berriak probatu zalea naiz eta beti izan dut burutan horrelako zerbait egitea. Proba egin, gustatu eta proiektua aurrera eramaten hasi nintzen. Ameriketara ikusi nuen *only one band* estilokan jotzen zutenen kontzertu bat eta horrelako zerbait egitea interesgarria iruditu zitzaidan.

Musikaz bakarrik bizitzea kosta egiten da?

Inongo ziurtasunik ez du bizimodu honek. Ez da erraza, baina aldi berean bizimodu oso polita da gustuko dudan horretan ari bainaiz. Hiru hilabete onak eduki ditzaitezue eta segidan hiru txar. Ez dakizu zer etorriko den. Dirua manejatzen, aurrezten jakin behar izaten da.

Bakarka edo taldean nahiago?

Gustura ibiltzen naiz bietan. Bat egitean berztearen beharra sumatzen dut. Arnasa ematen didate batak eta berzteak. Ezinen nuke bietako bakar bat aukeratu, biak behar ditut.

Orain zer duzu buruan?

Batetik, kantautore lanari berriz heldu eta disko luze bat grabatu nahi dut. Horretaz gain, lagun musikari batzuekin elkartu, Felix Buff (Willis Drummond), Ager Insunza (Audience), Jaime Nieto (We are standard), Iban Urizar (Andrakan) eta Igor Telletxearekin (Xabier Montoia, Petti...) eta banda bat sortu dugu. 2013an diska argitaratu nahiko genuke. Hori gauzatu bitartean, bidean kontzertu batzuk eman ditugu. Eskualdeko lehena, urtarrilaren 25ean izanen da Berako Kultur Etxean gaueko 22:00etatik aitzinera.

EUSKOA → IPAR EUSKAL HERRIKO MONETA

Euskoa Ipar Euskal Herriko karriketan izanen da urtarrilaren 31tik aitzinera

Eusko batek euro bateko balioa izanen du eta Euskal Herriko produktuak, lurraldeko lantegien arteko elkartasuna eta euskara bultzatzea du xede

Dagoeneko euskoa erabiltzeko konpromisoa hartu dute 73 enpresa eta 300 bat herritarrek. Hasteko, 126.000 billete inprimatuko dituzte

eta orain arte lortutako atxikimendua dela eta, ziurra da 22.000 eusko behintzat zirkulazioan jarriko direla hilabete hondarrean.

Eneritz IRAOLA

Moneta «euskalduna, ekologikoa eta solidarioa» bezala definitzen dute Euskoa bere sortzaileek. Bertako ekonomiaren alde egin, ingurumena errespetatu eta euskararen erabilera sustatzeko helburua duena. Heldu den urtarrilaren 31n ikusiko du argia eta hortik aitzinera, Euskoaren alde egin duten erabiltzaileek moneta berriarekin or-

daindu ahalko dute aukera eskaintzen dieten enpresa eta elkartean.

Euskal Moneta Elkar-teak du Euskoa kudeatzeko ardura. Joxet Lahetjuzan, elkarteko Sarako kideetako bat da eta erran digunez asko dira proiektuarekin bat egin dutenak «Elkartek 300 bazkide ditu dagoeneko eta arlo guztietako 73 enpresa, komertzio edo elkar-te ba-

tu dira ekimenera». Eta diotenez moneta karrikara atera aitzin «bertze hamarnaka batzuk helduko direla ziur» dira elkarteko kideak. Babesa adierazi dutenen artean, sektore ugari-tako herritarrak daude. Tartean dira, bertzeak bertze, laborariak, ile apaintzaileak eta jattetxeak. Elkar-teak ere badira, haien artean, AEK eta Euskal Herriko Laborantza Ganbara.

BILLETEEN EZAUGARRIAK

«Diru-paper berezi batean egindako 1, 2, 5, 10 eta 20 euskoren balioko billeteak» izanen direla erran digu Lahetjuzanek. Eusko bat euro batengatik aldatuko da. Euroko txartelen «itxurako eta ber-ziurtasunekoak» izanen dira baina «hauekin ezin erratukoak». Billeteak ezin direla kopiatu bermatzeko neurriak hartu dituzte. Inprimategi ba-

tek eginen ditu eta billeteek ziurtasun sistema bat izanen dute, euroek duten bezala. Banda disdiratsu bateramanen dute billeteek paperean txertatua eta Euro-billete bat fotokopiatzean gertatzen den gisara, arrastoa beltza bihurtuko da billetea fotokopiatzen badute.

EUSKOAK LORTZEKO

Euskoa erabili ahal izateko, Euskal Mone-



Hasteko 126.000 billete inprimatuko dituzte, 1,2,5,10 eta 20 euskoko ba-

JOXET LAHETJUZAN, EUSKAL MONETA ELKARTEKO SARAKO KIDEA

«Gure lekuko ekonomia herrira berlokalizatzeko bidea da Euskoa»

Euskoa moneta «herrikoia» eta «osatzaila» dela, azaldu digu Joxet Lahetjuzan Euskoa Elkarteko Sarako kideak «herrikoia da lurralde baten eremuan baliatzen delako eta osatzaila berriz, bertze moneta ofizial baten ordain, baina parean, beraz, hau ordeztu gabe erabiltzen delako». Gainera, moneta honi balio erantsi bat gehitu diezaiokete herritarrek «bertakoek nahi bezala karga dezakete edo mugatu, helburu ekonomiko, etiko, kultural, politiko edo bertze gai batzuetan» azaltzen digu.

Bertako ekonomiari bultzada emateko helburua du monetak, «gure lekuko eko-

nomia herrira berlokalizatzeko bidea da Euskoa, lekuko komertzio, enpresa, elkar-te, ekoizle eta herritarren arteko lotura berrituz» erran digu Lahetjuzanek. Horregatik, Euskoarekin bat egin nahi duten komertzioek Elkar-tearen Adostasuneko Komitearen onospena lortu behar-koko dute, euskoak ordezkatzeko dituen baloreak betetzen dituztela erakutsiz.

Etorkizunean proiektua Bera, Irun edo inguruko herrietara heda daitekeela us-te dute «muga-zaharraren bertzaldeko komertzio hurbilekoeri idekitzea badirudi erraz izanen dela. Urrunago, Hegoaldeko legeri menperatu behar-koko» dio.



Joxet Lahetjuzan.

Bertze aukera bat ere badagoela aipatzen du «behin guk etsenplua eman eta, hegoaldean beraiena asmatuko balute, gero biak parekatzea».



UTZITAKO ARGAZKIA

ko baliokoak.

BERLOKALIZAZIOA

«Euskoak denda batean erabiltzen baditugu, dendariak berriz baliatu beharko ditu hemengo enpresetan. Beraz, dirua gure lurraldean itzulikatuko da. Ez da euroarekin bezala gertatuko, ez da dirua enpresa batean erabili eta kanpora noranahi aterako».

ITUNA

«Euskoa erabili ahal izateko Euskal Moneta Elkarteko kide izatea beharrezkoa da. Horretarako Euskoaren Hitzarmena izenpetu behar dute, tokiko ekonomiaren aldeko konpromezua hartuz».

EUSKOAK EURO

«Aldaketa gauzatzean %5a atxikiko zaie hornitzaileei beraz, 95 euro lortuko lituzkete 100 euskoren truke. Ehuneko hirua atxikiko zaie elkarteei».

ta Elkarteko kide izatea beharrezkoa da. Horretarako Euskoaren Hitzarmena izenpetu behar dute, tokiko ekonomiaren aldeko konpromisoa hartuz. Hori egindakoan Eusko kideztaren txartela banatuko zaie, eta txartel hori hartuta, euroak euskoengatik aldatzeko apropos sortutako truke guneetara jo beharko dute.

Hornitzaile eta elkar- teek berriz, Euskoaren Hitzarmena izenpetze- az gain, Elkarteko Bat- zordearen adostasuna beharrezkoa izanen du- te. Izan ere, Euskoare- kin lotzen direnek Eus- koak errepresentatzen dituen baloreekin bat egiten dutela argi era- kutsi beharko dute.

URTEKO ORDAINSARIA

Euskal Moneta elkar- teko kideek urtean kuo- ta bat ordaindu beharko dute, baina ez da kopu- ru finkoa izanen. Gehie- neko eta gutxieneko ko- puruak finkatu dituzte, baina norberak nahi edo ahal duen gisako elkar- pena egiten du. Partiku-

EUSKOA ESKUALDEAN

Azkaine

- Trinketeko Ostatua
- Xoko Ona Ostatua
- Plazan Ostatua
- Txin-Txin arandegia

Senpere

- Berho harategia
- Aniotz harategia
- Darrigues okindegia
- Josilea ileapaindegia
- De folie en bonheur
- Patata Ttattola
- Botika Leku Ona
- Koko't jantzi denda

Sara

- Ametzeta lorategiak

Urruña

- SARL Baigura
- Pompriers solidaires

larrek 5 eta 20 euro arte- an ordaindu beharko di- tuzte, 60 eta 100 euro ar- tean hornitzaileek eta 10 eta 100 euro artean elkar- teek.

EUSKOAK EURO

Euskoak euroengatik aldatzeko aukera ere izan- nen da, baina helburua ez

ZERBITZU EMAILEENTZAT ERRONKAK

Bi urte, bi erronka

Euskoarekin bat egin duten zerbitzu emaileek (elkarte eta komertzioek) hurrengo bi urtetan bi desafio betetzeko konpromisoa hartu dute.

■ Ekonomia bertokiratzea :

- Zerbitzu emaileak **bertako hiru produktu sartu** beharko ditu bere aktibitatean
- **Hondakinak** bereiztu eta birziklatu (aurreneko aukera posible ez denean).

■ Euskararen erabilera publikoa sustatzea:


- **Afitxaketa elebiduna** egitea eta bere pro- duktu eta komunikazioan **euskara erabil- tzea**.
- 20 orduko **euskara formakuntza** profesional bat egitea.

denez hori, aldaketa gau- zatzean %5a atxikiko zaie hornitzaileei, beraz, 95 euro lortuko lituzkete 100 euren truke. Ehuneko hirua atxikiko zaie elkar- teei eta partikularrek ber- riz, ezin dute beren ka- buz aldaketa hau gauza- tu, hori egin ahal izateko elkarteren batetara jo be-

harko dute eta hauei be- zalaxe, %3a atxikiko zaie.

Herritik sortua, herri- ko ekonomia bultzatze- ko. Ipar Euskal Herriko poltsikoetara berrikun- tza ekartzeaz gain, eko- nomiaren eraldaketa helburu duen moneta da Euskoa.

EUSKOA ERABILI AHAL IZATEKO PAUSOAK





Nire txanda
Luis GARDE

Torrente 5

Nafarrok Eguberriak heldu aitzin izan genuen denboraldiaren estreño haundia ikusteko parada. Bai, "Torrente 5, Kutxa beltzaren kasua"z ari naiz, Santiago Cerverak protagonizatutako esperpento lotsagarriaz. Oraindik oritzen naiz nola, hondarreko udal hauteskunde kanpainan, pertsonaia hau Intzakardin barna paseatzen zen, harro-harro eta gorilaz inguratutik. Hainbertze konpainia ez zuen behar, bufundaz eta zapelaz jantzita, Iruñeko harresietara hurbiltzeko, eskua zulo beltzean sartzeko asmotan.

Kompetentzia desleala Santiago Segurari egin diotena, dudarik gabe. Baina, zoritxarrez, Cervera jauna figurante bat baizik ez da izan nafarren kutxaren fartsa horretan»

«Zoritxarrez, Cervera jauna figurante bat baizik ez da izan nafarren kutxaren fartsa horretan»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Olentzero joan zaigu...

Berdintasunaren izenean, bakarrik etorri ordez Mari Domingorekin jautsi zaigu... elikadurara osasuntsua medio, tripa handiaren tokian txokolate tableta markatuz... alkoholaren publizitatea debekatua dagoenez, Isostar potea zeraman botil ardoaren lekuan... Tabakoaren legea betetzeko, pipa hartu beharrean txiklela mastikatzen zuen... Brad Pitten itxura hartu diot Olentzerori.

Nabarmentzekoak



Juan Bautista IRAZOKI
Erretorearen heriotza

Beran sortu eta urteak eman zituen Igantzi eta Leitzako apez. Azken borts urteak Betelun egin zituen, denetan abesbatzak landuz. Ur-tarrilaren 5ean hil zen, 82 urte zituela.



Gorka URTASUN
Frontoi laburrean jaun eta jabe

Azken urteotako hitzorduari eta txapelari ez dio hutsik egin aurrelari irurritarrak. Eguberrietako frontoi laburreko buruz buruko erremonte txapelketa hirugarren aldiz segidan irabazi du.



Alberto BARBERENA
Elizondoko korrikalaria

Erdi ospakizun moduan egiten den lasterketa izanagatik, lau aldiz antolatu da Elizondoko San Silvestre proba eta lauetan herriko korrikalaria suertatu da garaile. Bada zerbait!

Atzera begira → 2003.01.23 / TTIPI-TTAPA 342 zbk.



Pedro Jose Martin, 12 urteko tratantea ezagutzen

Duela hamar urte Pedro Jose Martin, Doneztebeko tratante gaztea ezagutu genuen. 12 urte bertzerik ez bazituen ere, dagoeneko borts zeramatzin tratuan eta bere ustez, «esperientzia hori aski da edozein baserritarrekin tratua ixteko». Aita ere tratantea zuen, osaba bat albaitaria, bertzea harakina, anaia albaitaritzak ikasten... «Etxean elkartzen garenean beti aziendetaz solasten dugu: prezioak, zaldiekin non barna ibili, nola zaindu... Aitak kontsejuak ematen dizkit» zioen. Ferietara joateko ohitura baldin bazuen ere, garbi zuen gauza bat: «Orain etxetik azienda gehiago saltzen dugu ferietan baino».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Erredakzioa** Eneitz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztexea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia
Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitzza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leitzza16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortziritako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua



Kolaborazioak

Demagun datu harrigarri hauek egiak direla...

Juainas PAUL ARZAK

Demagun bildu ditudan datu harrigarri hauek egiak direla. Hala bada, 2012ko urrian, espainiar estatuko Parlamentuan jaso dituzten soldatak, osagarriak direla eta, 4.382,08 eta 15.860,22 euroen artean mugitu dira. Handiena ikaragarria iruditzen zait. Bakarra da, 10.000 euroko muga gainditzen dutenek gutxi batzuk direlako. Txikiena ez dago batere gaizki. Gehienek hori baino gehiago kobratu dute, gobernuko aldekoak izan ala ez. Eta horrenbeste hartzen dutenek mugatu dezakete lasai langabeen, pentsionisten, langile arrunten soldatak? Proporzioa non dago? Zu baino bi, ...lau, ...zortzi aldiz gehiago jasota, zenbateko kenketa egin beharko zioten eurenari?

Lagun batek 'Los trileros forales' izenburuko lana bidali dit. YouTuben topa dezakezu. Merezi du. Hurbilagoko adibideak dira, ezagunagoak, behar bada. Zikinak, zalan-tzarik gabe. Ustelkeriak nonahi, CAN, Hezkuntza, Unibertsitatea, Gobernu forala, ... ukitzen dituzte. Kutsatu? Izurriteaz hitz egin daiteke? Goikoen tradizio batetaz? Politikoki konpon dezakegu? Alderdien bitartez? Botoa dela, gure esku dugun tresna bakarraz? Botoen eremua gero eta urrunago eramanez, handituz? Kontzejuak desagerarazi, udalak bildu, mankomunitateak murriztu, administrazio politikoa argaldu. Eskolak eta hezkuntzako baliabideak murriztu, sendagile eta erizainak mugatu eta gutxitu. Hauek dira, antza denez, ustelkeria susmopean dauden batzuei argitzen zaien bidea. Eurenarekin jarraitzeko?

«**Eta horrenbeste hartzen dutenek mugatu dezakete lasai langabeen, pentsionisten, langile arrunten soldatak? Proporzioa non dago? Zu baino bi, lau, zortzi... aldiz gehiago jasota, zenbateko kenketa egin beharko zioten eurenari?**

«**Kontzejuak desagerarazi, udalak bildu, mankomunitateak murriztu, administrazio politikoa argaldu. Eskolak eta hezkuntzako baliabideak murriztu, sendagile eta erizainak mugatu eta gutxitu. Hauek dira, antza denez, ustelkeria susmopean dauden batzuei argitzen zaien bidea»**

Beltzak eta xuriak

Mikel RODRIGUEZ

Afrika hegoaldeko muturrean elkarren ondoan dauden hiru herrialde handi dira Namibia, Hegoafrika eta Zimbabwe (garai bateko Rhodesia). Historia hurbilean elementu komun bat dute: hiruetan indarrean egon ziren 'apartheid' sistemak, hau da, biztanleen guttiengoa ziren europar jatorriko xurien boterea bermatzen zuen politika, bertako etnia beltzak diskriminatuz. Hiru herrialdeetan sortu ziren xurien diktaduren aurkako borroka mugimenduak, eta hiruetan lortu zuten sistema botatzea: Zimbabwen 1981ean, Namibian 1990ean, eta Hegoafrikan 1994an. Mugimendu bakoitzak izan zuen bere buruzagi famatua: Robert Mugabe Zimbabwen, Nelson Mandela Hegoafrikan eta Sam Nujoma Namibian. Hirurak ailegatu ziren herrialdeko presidente izatera, eta bat, Mugabe, hala da oraindik. Segur aski, Nujoma ezezagunena zaigu Europan eta Ipar Amerikan, baina bertze biak ez; gehienbat Mandela. Zer erran Mandelari buruz. Mundu guztiko buruzagi politikoeak eta hedabideek gorai patzen dute, eta irudi ukiezina da. Euskal Herrian ere, ETArekin indarkeria deslegitimatzeko pertsonaia bakezale 'gandhiano' eredugarritzat aurkeztu izan dute batzuk, 1961ean Umkhonto we Sizwe (Nazioaren Lantza) talde armatua sortu zuela aipatu gabe utziz. Mugaberi buruz, ordea, ez ditugu iritzi horiek adituko hemen inguruan. Mugabe diktadore bat da, zanpatzailea, autoritarioa, basatia... Tira, egiatik badu zerbait horrek, baina interesgarria da Charles Barron New Yorkeko zinegotziak duela bortz urte hori buruz egin zuen gogoeta. Apartheid sistemak erorita ere, lur gehienek xurien esku segitu zuten Namibian, Hegoafrikan eta Zimbabwen; beltzek deus gabe segitu zuten. Namibian nekazaritzako lurren %12 kendu zizkieten xuriei 2007an, beltzen artean banatzeko. Hegoafrikan oraindik ez dituzte ukitu, eta Zimbabwen 2000. urtean desjabetze masibo bat hasi zuten. Nahiz eta xuriak biztanleen %1 baino guttiago izan, 2002an lurren %70 eurenak ziren. Gaur egun gehienak beltzen artean banatuta dituzte. Barronen ustez, hori da arrazoi nagusia gaur egun Europan eta Ipar Amerikan Mandela santuaren pare gurtzeko, eta Mugabe, berriz, deabruaren pare. Barronek erraten digu Mandelak 'adiskidetzea' hobetsi zuela, eta ez zituela xuriak gehiago molestatu; Mugabek bai. Ikasgaia zein da: zuk egin zuen borroka, irabazi hauteskundeak, lortu botere politikoa, ez zaigu gaizki iduritzen, baina ez ukitu ekonomian nagusi direnak. Kendu diktadorea, baina patrioiak bere horretan utzi. Al datu azala, muinera jo gabe. Hori ez da iraultza bat.

«**Ikasgaia zein da: zuk egin zure borroka, irabazi auteskundeak, lortu botere politikoa, baina ez ukitu ekonomian nagusi direnak»**

Irakurleak mintzo

Agerra auzotik:
Olentzeroari
lepoa moztu
zionari

Javier TELLETXEA IRIARTE
(Auzo taldearen izenean)

Eguberri egunez lepoa moztu zioten Olentzeroari, Berako Agerra auzoko plazan zegoenari. Hirugarren aldia da.

Berako karriketan ikus zitekeen olentzero bakarra edo bakana, auzolanean egina, pertsonaren tamainakoa, apal eta aski xume, pinu kostaneraz eginiko etxola aterpe, esku-argia (elkartek emandakoa)...Nori egiten ote zion kalte? Ba ilunabarrez edo gaez, baten batek lepoa moztu zion, burua (kartoi gogorrez egina eta margotua) xehatu lurrean joka eta aldameneko belasorora bota.

Zein izan ote da heroe hori?

Agian euskal giroa gorroto duen horietako baten bat?. Agian bai.

Agian bertakoa edo aski hurbilekoa izan da. Badakizu, lagunartean harroputz indartsua eta ausarta agertu nahian, bromazale, paiasoarena egiten. Paiasoarena? Ez, gizona. Paiasoek irriparra eta ilusioa sortzen ditek; hi bezalakoek irriparrak zapuzten; hi ez haiz paiasoa; kirten eta astazakila galanta bai, haundikoz. Kakitzat ¡!

Eskerrik asko
eta agur
Juan Bautista

Inazio ITURRARTE ALDUNCIN

Urte askotan zehar Asketa Gazte Abesbatzaren zuzendari bezala Juan Bautista Irazo-kik ongi etorria ematen zien hiru erregei. Lopeneko iturrian jartzen zen jaiotzan hiru erregeak aiatzerakoan Giuseppe Verdiren 'Nabuccoren' musikarekin eta Mikaela Labaien 'Astaitzaga-koak' idatzitako testuarekin. Bizitzaren nahia hori zelakoan edo urtarriaren 5ean zendu zen Juan Bautista Irazoki Nespias.

Leitzara ailegatu zenean beste batzuek Asketa Abesbatzarekin hasitako lanarekin jarraitzea erabaki zuen, eta zuzendari lanetan hasi zen. Abesbatzen mundua bere mundua zen, kantatzeak bizia ematen zion. Urte haietan mutil batzuk Asketa Abesbatzan kantatzen hasi ginen, berak harriera beroa egin zigun, eta urte pare batetan hamar-hamabi mutil baginen. Urte askotan elkarlanean aritu ginen, denbora luzeak elkarrekin pasatu genituen. Beti ez ginen ados izaten, gauza batzuetan ikuspegi ezberdinak genituen, baina errespetuz entzun eta onartzen zituen gehienetan.

Asketa Gazte Abesbatzarekin emanaldi asko eta asko zuzendu zituen, bai Euskalerrian,



Bota bertsoa
Aitzol EIZMENDI (Leitzako bertso eskola) • Doinua: Iparragirre abila dela...

Ihoteak 2013

<p>Beste urte bat joan zaigu ta berriak hartu du gaina, kale denetan oraindik dago gabonetako usaina. Ihoteak badatoz! Guztiok gaude gogoz! Ta ze ondo alajaina! Ea guztiok gozatten dugun pasatakoetan haina.</p>	<p>Pailazo, sorgin zein astronauta inor ez mozorrotzeke, haur mozorrorik ez dugu falta pixohial eta txupete. Leitzan dira aurrenak! Etorri hona denak! Ta barrenak ondo bete, ongi pasatu nahi baduzue gonbidatuta zaudete.</p>
--	---

estatuan edo atzerrian; elizetan, kontzertu aretoetan, kalean, meategian, egoitz asko eta ezberdinetan, autobusean.... edozein leku onazen kantatzeko, hamaika bazkaloste eta afaloste kantari eginak ditugu, oso ongi pasatzen genuen kantari. Euskararekiko eta euskal kulturarekin zuen konpromisoa era age-ria zen, beti euskaraz kantatzen zuen Asketa Abesbatzak, nahiz eta jatorrizko hizkuntza kanta askotan beste bat izan.

Lan handia egin zuen Asketa Gazte Abesbatzarekin, baina nire iritzi apalean umetxo eta gaztetxoekin egin zuen lana goraiatzekoa da. Kirolean erabiltzen den hizkuntza erabiliz gero esango nuke batez ere "harrobiko lan izugarria egin zuela". Ehunka gaztetxok berari esker kantatzen hasteko aukera izan dute. Ikargarrizko lana egin du, kantatzea zer den jakiteko aukera izan zuten, eta argi dagoena da, be-

rari esker gaur egun handik eta hemendik jende asko gabiltzala batzuetan eta bestetan kantari. Horra hor bere lanaren emaitza, berak kementsu eta adorez egindako lanaren emaitza dudarik gabe. Azken irail-urrian bost urte bete ziren Juan Bautista Leitzetik atera zela, bost urte luze berak utzitako hutsunea bete gabe. Dudarik gabe zaila dela horrelako lana egitea, baina kantua, ahotsa, musika eta abesbatza maite ditugunontzat urte gehiegi harrobia landu gabe, eta harrobirik gabe tamalez izango ditugu kantari berriak.

Azkeneko hilabete honetan berarekin egoteko aukera izan dut, bazekien gaixorik zegoela, gauza askotaz berrikerian aritzeko aukera izan genuen, betiko Juan Bautista ikusi nuen, ezer gutxi aldatuta, momentu zailenetan ere betiko moduan ikusten zituen gauzak. Izenburuarekin bukatu dut, edonora aliega-

tzen zarela ere hasi ensaiatzen, eskerrik asko eta agur Juan Bautista.

Bordako sutea

Juanjo ELIZALDE (Goizueta)
Maingeneko familiaren izenean

Idatzi honen bitartez gure eskerrik haundienak eman nahi dizkizuegu, bordako sutea dela eta, laguntza eta animoak eman diguzuen gutzietan, zer esanik ez herriko suhiltzaile bolondresei egindako lanagatik. Eskerrik asko denei.

Egin zaitez
ttipi-ttaparen
harpidedun



(0034) 948 63 54 58

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**

Tel.: **948 63 54 58**

Faxa: **948 63 54 57**

Prentsatik bildutakoak



«Ni nafarra sentitzen naiz, eta aldi berean euskalduna sentitzen naiz, Nafarroako historiaren berri badudalako. Eta neretzat euskara oso garrantzitsua da. Euskal sentimendu handia duen herri batekoa naiz eta nik hori hartu dut. Neretzat euskarak eta Euskal Herriarekin zerikusia duen guztiak garrantzi handia dauka. Nere lehen hizkuntza da euskara»

Oinatx BENGOTXEA
Leitzako pilotaria
D.NOTICIAS, 2013.01.07



«Ezin duzu urte osoa Frantziako Tourrera jokatu, karrera gehi- go ere badaude. Paris-Nizan eta Kataluniako Voltan ere aurrean egon nahi nuke, konpetitzen. Sistema berriak puntu gehiago ateratzea eskatzen du eta horrek denbora gehi- goz konpetitiboa izatera behartzen zaitu. Presio gehiago sartzen dizu, baina hori da daukaguna».

Mikel NIEVE
Leitzako txirrundularia
D.NAVARRA, 2013.01.11

11 galdera labur

Musikaria, jaio edo egin egiten da?

Nik uste jaio egiten dela. Nik, 2-3 urterekin filarmonika jotzen nuen, baina gero landu ere, nik solfeoz gain, Lesakako Rafael Sanjurjorekin eta Pepitto lantzirekin ikasi nuen soinua jotzen.

Zure kasuan segida ere izan duzu... Genetikoa izan daiteke?

Semeak segitu du, bai, Aitor lehen- gusuarekin, batera hasi zen Jaliskon.

Plazako soinuariaren artean betere- noena zara?

Orain tarteka-tarteka bertzerik ez dut jotzen, baina 12 urterekin hasi eta 58 urte arte, han eta hemen ibilia naiz.

Herriko bestak edo inauteriak?

Gazte denboran bietan ibiltzen nintzen, baina inauteetan soinuarekin ibiltzeak aunitz nekatzen du.

Kioskoan edo mahainguruan?

Biak ere politak dira, baina orain suertatzen da kiosko inguru- ruan inor ez izatea dan- tzan. Mahai inguruan beti baduzu norbait.

Kinto bestak edo ez- kontzak?

Igual kinto beste- tan jendea alai- ga ibiltzen da,

baina ezkontzak ere politak dira. Zein da gehien eskatu dizuten pie- za?

Gazte denboran, jotak eta zortzikoa.

Eta zuri gehien gustatzen zaizu- na?

Lehen ezkontzatan, bazkariaren er- dian jotzen zen kontzertu moduko bat, Zarrademonti edo horrelako zerbait zuen izena.

Inauterietan, joareekin edo akor- deoiareekin?


Joareekin ez naiz behin ere ibili, be- ti akordeoiareekin.

Oinez ibiltzea ere gustuko omen duzu... Ibilbiderik gogokoena?

Goizero 10 kilometro egiteko ohitu- ra dut, Iturenetik Donezte- bera eta buelta.

Kaskoetan, musika edo irratia?

Lehen ibiltzen nuen, baina karreteran ibil- tzen naizenez, peligr osoa iru- ditu eta orain ez dut ibil- tzen.



Ramonxo MITXELENA → Iturengo soinuaria izandakoa

elika
Dietetika... elikadura
Iñaki Andueza Larra
Iñeza, 6 behea - BERA - T. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

- Ahokulturaz dietetika nutrizionala pertsonalizatua
- Gorputz konposizioaren analisiak: ura, muskuloa, gantzak...
- Dietoterapia: hipertentsioa, hiperkolesterolemia, diabetesa, arazo digestiboak...
- Kalorien eta glukoza azterketak

Karsuk
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altzariak
Karlos Pombar Sainz
C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barnukook eta fatxadak
tel. 666 235 466

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Timo/Fax: 948 630 018
Kantillonberri 12 - BERA

GIZARTEA

GIZARTEA → CIES-EN IKERKETAREN ARABERA

Ttipi-Ttapa aldizkaria da Nafarroan gehien irakurtzen den euskarazko argitalpena

25.000 irakurle izan zituen iaz

TTIPI-TTAPA

Nafarroan argitaratzen diren euskarazko argitalpenen artean irakurriena Ttipi-Ttapa hamabostekaria da. CIES erakundeak Nafarroako Gobernurako egindako ikerketaren arabera, 25.000 irakurle zituen 2012an. Nafarren erdiak baino gehiagok herrialdean argitaratutako aldizkako argitalpenen bat irakurtzen du.

278.000 nafarrek guztira, biztanleriaren % 50,6k, Foru Komunitatean argitaratutako eta egunerokoak ez diren argitalpenak irakurtzen dituzte, Cies azterketa demoskopikoen enpresak Nafarroako Gobernuaren Kulturako, Turismoko eta erakunde Harremanetako Departamentuarentzat egin

duen bosgarren azterketaren arabera. Azterketak 2011n baino 11.000 irakurle gutxiago erregistratzen ditu.

2012ko inkestak 31 argitalpenen irakurleak zehazten ditu (zazpi astekari, hiru hamabostekari, hamabost hilabetekari eta sei beste maiztasun batzuekin; guztira, 2011n baino hiru argitalpen gutxiago), 2011rekin alderatutako irakurle-kopurua eta irakurleen profila.

Azterketan aipatzen denez, hilabetekariak irakurle-kopuruari eusten diote, 142.000, 14 urtetik gorako Nafarroako biztanleriaren % 25,9, eta astekariak irakurketa jaitsi egin da, 73.000 irakurleekin (biztanleriaren % 13,3); hamabostekariena ere jaitsi egin da, 53.000 irakurleekin (% 9,7) eta baita bertze maiztasun bat dutenena ere (bi hi-



Hamabostekariaren artean ere, izan euskaraz edo gazteleraz, TTIPI-TTAPA da irakurriena.

lean behin, hiru hilean behin edo sei hilean behin), 104.000 irakurleekin (% 19).

Astekaria zabaldua Plaza Nueva aldizkaria da, Tuteran argitaratzen da eta 19.000 irakurle ditu. Ondotik datoz, La Verdad elizbarrutiko astekaria 17.000 irakurleekin; La voz de la Ribera 16.000 irakurleekin, euskarazko Guaixe aldizkaria (Sakanan argitaratutakoa), 14.000rekin; La Ribera Semanal (Diario de Noticias) 12.000 irakurleekin; Merindad de Estella (Diario de Noticias), 9.000 irakurleekin; eta La Noticia de la Semana (Errioxa Beheko eta Nafarroako Erribera aldekoa), 2.000 ira-

kurleekin.

Hamabostekariaren artean, irakurle-kopuru handiena duena Ttipi-Ttapa aldizkaria da, 25.000 irakurleekin; gibelatik daude, Calle Mayor (Lizarreria, 18.000) eta La voz de la Merindad (Tafalla, 12.000).

Hilabetekariaren artean, Ezkaba da buru (Erotxapea, Iruñea), 36.000 irakurleekin; jarrarian, Al revés eta Vivir en Barañáin, 16.000rekin; Negocios en Navarra eta Txantrean Auzolan, biak ere 14.000 irakurleekin; eta Berriozar eta Entreto2 Auzolan (Lizarreria), 12.000 irakurleekin.

Bertze maiztasun baten Nafarroan argita-

ratzen diren aldizkariaren artean, irakurle-kopuru handiena Ze berri aldizkariak du (bi hilean behin, 42.000 irakurle), eta haren atzetik datoz Zona Hospitalaria (bi hilean behin, 35.000) eta Conocer Navarra (hiru hilean behin, 34.000).

Informazio horretarako oinarriztat hartu den inkesta demoskopikoa urriaren 15etik azaroaren 14a bitarte egin zitzaizen 1.000 pertsonari 14 urtetik gorako Nafarroako 548.953 herritarren unibertsoaren artean, 2012ko Nafarroako Hedabideen Audentziaren Azterketa Orokorren bigarren txandarekin bat etorritik. Konfiantza-maila % 95ekoa da.

MENDIKO

SAGARDOTEGIA · ERRETEGIA · IATETXEA



SAGARDOTEGI SASOIAN
ORTZIRALA GAUETAN IREKIA!!!

SAGARDOTEGI MENUA:

- Txorizoa erreta
- Bakailoo-tortilla
- Bakailoo frijitua
- Txuleta
- Gazta eta intxaurrak

30€

ERRESERBAK EGITEKO:

948 630 302
670 365 011
IBARDIN (Bera)

MANTTALE MENUA:

- Kroketak
- Bakailoo-tortilla
- Txuleta
- Gazta eta intxaurrak

25€

Joan-etorriko garraioa negoziatzeko aukera

KULTURA → 22:00ETAN HASITA

Bertsotrama izanen da ortziralean Kultur Etxean

5 euroko sarrera ordaindu beharko da

TTIPI-TTAPA

Irausiazu bidia, Xabier izeneko bertso-trama antolatu du Berako Euskara Batzordeak urtarrilaren 18an, ortziralean 22:00etatik aitzinera Kultur Etxean. Jon Maia, Onintza Enbeita, Julen Zelaieta eta Xabier Silveira ariko dira bertsoan eta Garaxi Taberna eta Patxi Castillo izanendira tramagileak. Sarrera 5 euro ordaindu beharko da.

Kultur egitarau zabala

Bertso tramaz gain, bertze zenbait kultur ekitaldi antolatu dira egunotan. Hilaren 22an, *Nola egin konpost* hitzaldia eskainiko dute 18:30ean Beralandetan. Hilaren 25ean, Joseba Irazoki eta bere lagunek kontzertua eskainiko dute 22:00etan Kultur Etxean. 6 euroko sarrera ordaindu beharko da. Egun berean, Ixabel Mi-

llet ipuin kontalariak *Galzagarriak dantzan*, 3 eta 5 urte arteko haurrei zuzendutako ipuina kontatuko du 18:00etan herri liburutegian.

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolako ikasleek hainbat emanaldi eskainiko dituzte asteotan. Hilaren 22an, haize emanaldia izanen da 17:30ean; hilaren 23an perkusio emanaldia (18:00), 29an gitarraren emanaldia (17:30ean) eta 30ean txistu emanaldia (18:30).



UTZITAKO ARGAZKIAK

Urtea dantzan akautu zuten dantzari eta musikari helduek

Hilabetetako entsaioen ondotik, garai bateko musikari eta dantzariak emanaldi bikaina eskaini zuten abenduaren 30ean eguerdian Altzateko plazan. Hasiera batean, abenduaren 26an, garai batean bestak ospatzen ziren San Esteban egunean dantzatzeko asmoa omen zuten, baina batzuk lana zutelako, bertze ezin zutelako eta azken finean, asteguna zelako, abenduaren 30era gibelaratzea erabaki zuten. Emanaldi polita eskaini zuten, animazio handiarekin eta jendea ere bildu zen Altzateko plazan ikuskizunaz gozatzera. Lehenagotik kalejiran ere ibili ziren dantzariak eta txistulariak.

HERIOTZA-OHARRA

Azken agurra Juan Bautista Irazokiri

TTIPI-TTAPA

Aski ezaguna eta maitatua zen Juan Bautista Irazoki apezga gurere eskualdean. Urtarrilaren 5ean zendu zen, 82 urterekin eta errege egunean eman zitzaion azken agurra Berako San Esteban elizan egindako hileta ospakizunean. Jendetza bildu zen apezari egindako lana eskertu eta omenaldi hunkigarri bat eskaintzera. Besteak

beste, abesbatzetako kideek Agur jaunak abestu zuten elizaren irteeran eta Igantziko dantzariak agurra dantzatu zioten.

Sortzez beratarrak, Igantzi eta Leitza urte luze jardun zuen apez eta 2007az geroztik Belun ari zen erretore. Haur, gazte eta helduengana iristea lortu zuen, bertzeak bertze musikarako zuen afizioaren bidez, egondako



UTZITAKO ARGAZKIA

Igantzi dantzariak Aurrekua dantzatu zuten.

herri guztietan abesbatzako zuzendari gisa jardun baitzuen. Herri batetik bertzera aldatuta ere, abesbatzako kideekin harreman estua edukitzen jarraitu zuen. Eza-

gutzen zutenek, «apeza egondako herri guztietan oso maitatua» zela diote eta nabaria izan zen hori, urtarilaren 6an eman zioten azken agurrean.

BETILE LUZAPENAK (ILEZ ILE) | AZAZKALEN ESKULTURA | MANIKURA ETA PEDIKURA
MAKILLAJEA | EDERTZE SAIOA | AURPEGI DEPILAZIOA

OYÁ
ESTUDIO DE BELLEZA

AUTO-MAKILLAJE IKASTAROAK:
oinarriak, bertekoa edo aurreratuak | IGANDEAK 9:00-13:00

Astearteak eta ostegunak ITXITA: 9:00-13:00
Larunbatak IREKIA: 10:00-14:00 | 16:00-20:00

Legia 45-behea • BERA T: 948 631 005 • M: 698 499 192 • 698 499 204

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

LESAKA

GIZARTEA → HAINBAT ATAL BERRI DITU

Webgunea berritu du Udalak

Krisia medio, 012arekin zuen kontratua eten du Herriko Etxeak

Aitor AROTZENA

Itxuraz gain, bertze hainbat berrikuntza ditu udalaren webgunea berriak (www.lesaka.net), «denak ere garai berrietara egokitzeko xedearrekin eginak». Krisia medio, udalak 012rekin zuen kontratua eten egin duenez, bertze bide bat ireki du webgunehonekin eta hainbat atal berri eskaintzen ditu.

Herrira saskiak

Presoekin elkartasunean Herrirak bi saski zozketatu ditu Eguberri hauetan. 0158 eta 1812 izan dira zenbaki sari-

dunak. Azken honen jabea Eneko Fernandez da, baina lehenbizikoaren jabea ez da agertu. Urtarrilaren 21 arteko epea izanen du saskia jasotzeko Arranon, bertzela berriz egingen da zozketa. Bidenabarkoan, Herrirak eskerrak eman nahi dizkie bere produktuak eskaini dituzten komertzio eta ostatuei.

Zozaia Nafarroako txapeldun

Oberena taldean ari den Xabier Zozaia herritarrak Nafarroako binakako pala txapelketa irabazi du Roberto Zazpe taldekidearekin batera. Urtarrilaren 7an Noaingo Bidezarra frontoiak jokaturako finalean 45-42 irabazi zieten Jon Esnaola eta Iñaki Mariñelarenari.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketako sariak eman ditu Beti Gaztek

Irain eskolako, Tantirumairu ikastolako eta Toki-Ona Institutuko 46 neska-mutikok parte hartu dute Beti Gazte elkarteak antolatutako 2012ko Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketan. Haurrek eta gaztetxoek, herriari buruzko 30 galderei erantzun behar zioten eta abenduaren 28an egin zen sari banaketa elkartearen egoitzan. LHko 1. eta 2. mailako ikasleen artean lehen saria Josu Zubieta Eneerregarentzat izan zen, bigarrena Oihana Arruti Terrerosentzat eta hirugarrena Unax Ordoki Etxepetelekurentzat. LHko 3., 4. eta 5. mailakoen artean lehen saria Orti Arotzena Portuk eskuratu zuen; bigarrena Manex Ramos Zumaldek; hirugarrena Ane Ordoki Telletxeak, laugarrena Olatz Arakues Mikela-jauregik eta bosgarrena Aloña Etxarte Telletxeak. LHko 6. maila eta DBHko 1. eta 2. mailakoen artean lehen postuan Ganix Arruti Terreros gelditu zen, bigarren Nerea Ordoki Etxepeteleku, hirugarren Kattalin Odriozola Muxika, laugarren Ane Telletxea Igoa eta bosgarren Beñat Ordoki Telletxea. Galdera gehien zuzen erantzun zuenarentzat sari berezia Josu Zubieta Eneerregagak eraman zuen. Aurten, berrikuntza bezala, partehartzaileek herriguneko ahalik eta iturri gehien lokalizatu behar zituzten eta Ganix eta Oihana Arruti Terreros anai-arrebek eraman zuten sari berezia.



UTZITAKO ARGAZKIA

100 korrikalari Elkartasun Sansilbestrean

Bortzirietako lehen Sansilbestre lasterketa egin zen, Herrirak antolatuta, presoekin elkartasunean. Ehun bat korrikalariak parte hartu zuten, giro ederrean.

OSPAKIZUNAK

San Anton eguneko erromeria egingen da igandean Endara auzoko basiliza inguruan

A. AROTZENA

Urtarrilaren 17a, ortzeguna da San Anton Eguna. Abeltzain eta nekazarien egunaren seinale, egun horretan meza izanen da Endara auzoko basilizan, 10:30ean eta 12:00etan. Baina ospakizunik handiena igandean egingen da, orduan bilduko baitira auzoan Bortzirietatik eta Gipuzkoa aldetik etorritako mendizaleak, txirrindulariak, zaldunak eta nola ez, autoan joandakoak ere, goiza erro-

meri giroan pasatzera. Goizean, 10:00etan, 11:00etan eta 12:00etan izanen dira mezak. Garai batean, azizendak eramaten omen ziren, basilizaren inguruan hiru itzuli eman eta eritasunetatik babesteko. Gaur egun ere, bakar batzuk zakurrarekin bueltaka ibiltzen dira. Soinularia ere ariko da goiko plazan. Horretaz gain, taloak, erroskilak eta bertze erosteko modua izanen da. Arratsaldean, herriko plazan musika izanen da.





ARGAZKIAK: MIREN LASAGA

Errege egunean urtea bete zuen Etxalar kantuz ekimenak.

GIZARTEA → OTSAILEAN EGINEN DA

Zuhaitz landaketa eginen da auzolanaren bidez

Parte hartu nahi duenak izena eman behar du Udaletxean

Irune eta Itsaso

Otsailean mendian zuhaitz landaketa egin nahi da auzolanean. Horretarako parte hartu nahi duenak, izena eman beharko du Herriko Etxean. Landaketa zein egunetan izan den oraindik zehaztu gabe dago.

Etxalar kantuz

2013ko lehenbiziko igandean Etxalar Kantuz-ek bere lehenengo urtemuga ospatu zuen. Ekitaldi hau berezia izan zen, kantuak, herriko musikariek trikiti, pandero eta gitarrarekin lagunduak izan baitziren. Hurbildutako jendea gustora aritu zen kantuan. Antolatzaileek deialdia egiten dute, hilabetero lehenengo igandean kantatzera animatzeko.

Altxatak bilera deialdia

Altxata kultur elkar-teak herritar guztiak bilerara deitzen ditu, ur-tarrilak 18an, 19:00tan, Etxalar-ko Kultur Etxean. Ondorengo 2 gai-ek buruz solastuko da:

1.- Elkartetik herri-tarrak federatu ahal izateko argibideak.

2.- 2013an Etxalar-ko Mendi Itzulia egin ahal izateko informazioa zabaltzea.

Ahalik eta jende gehien agertzea eskertuko lukete.



ARGAZKIA: EDURNE ELIZAGOIEN

Txokolatada Larraburuan

Urteroko ohitura segituz, aurten ere Errege egunean Larraburuak txokolatada eskeini zien hurbildutako hainbat haur eta gurasoei. Giro ederrean pasa zuten arratsaldea.



ARGAZKIA: IRUNE ELIZAGOIEN

Ela-ela kantatuz, neska-mutikoak eskean

Aspaldiko ohiturari segituz, abenduko azken egunean, herriko haurrak "ela-ela" kantatuz eskean ibili ziren.

GIZARTEA

Kontzentrazioak preso en alde

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 28an eta 31n egin ziren kontzentrazioak *Euskal presoak Euskal Herrira* lemapean. 28koan deialdia egin zuten ur-tarrilaren 12an Bilbora joateko.

ARGAZKIA: ONINTZE ZINKUNEGI



F. LANCHAS
Akubidulorria eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
jarria
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

FRANCO
FRANCO
FRANCO, S.L.
FRANCO S.L. BIDASOAN
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

ZUBIONDO
Jatetxea
agardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA

carroba
gostotegia elandegia
Pl. de Etxegara 25 baxo
31700 BERRIOVAROZ
948 630 099
www.carroba.net

ARANTZA

GIZARTEA → MOZORRO BESTA

Ilbeltzaren 31tik otsailaren 2ra izanen dira inauteriak

25 mozorro
xuriren taldea
prestaketa
lanean ari da

Nerea ALTZURI

Urtea hasi orduko, inauteak gain-gainean ditugu. 25 gazte urtarriari bukaera on bat eman eta otsailari ongi etorri are hobeagoa emateko antolaketa lanetan ari dira. Aunitzek galdetzen dute bai: noiz dira inautik? Aski besta politak izaten dira eta herritik kanpora ere ospea dute. Jende aunitz inauterietako giroan murgiltzen da herritarren arrimuan. Aspaldiko ohiturari eutsiz, mozorro xuriak inautetako pertsonaiak dira, eta seguru, mozorro beltzak ere ez direla urruti ibiliko.

Urtarrilaren 31tik otsailaren 2ra izanen dira aurten inauteriak eta horren berri zehatza, ge-

higarri berezian daukatzue irakurgai. Azpimarratzekotan, ortzegunean mozorroek gosaldutik eskolara egiten duten bisita; ortziral arratseko emakumeen afaria Burladan eta Xebastian Lizaso eta Jon Maia bertsolariekin afaria Aterpeneta larunbateko aizkora apostua.

ESKOLAN ERE

Ortzegunean, eskolan bazkalondoan mozorro besta eginen dute. Haurrak mozorrotu eta besta giroan izanen dira.

Ortziralean eta larunbatean berriz, hirugarren ziklokoak eta DBHkoak Aientsa, Azkilarrea eta Bordalarrea auzoetan puxka puxka ibiliko dira. Ttikienak, herrian guratsoekin ibiliko dira.

Larunbatean, berriz, eskolako zaharrenek taldea Eguzkialdea auzoko eta karrikako etxeetan ibiliko dira.



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

Elkartasun kalejira eta zozketa

Urte zahar arratsean Elkartasun kalejira eta zozketa egin ziren Goiko karrikan eta herriko plazan. Aintzane eta Aitziber herriko trikitilariak gidatuta, poteoa egin zen eta ondotik plazan elkartasun zozketa. Herriko produktuez osaturiko zare haundi ederra Aientsako Gaxtelenekobordako Mirian Lizardik eraman zuen; eta bigarren saria, Arantzako bildotsa berriz, Lesakara joan zen.



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

Errege Kabalgata jendetsua aurten ere

Olenterok egin bezalaxe, Meltxor, Gaspar eta Baltaxarrek eta beuren laguntzailerek bisita egin zuten. Opariz beterik etorri ziren eta Guraso elkarteak prestatuturiko ekitaldian hainbat herritarrek parte hartu zuten. Plazan geldialdia egin zuten lehenik eta Ander Almandoz zinegotziak harrera egin zien. Ondotik, elizara joan ziren eta han, Maribel Apezetxeak aurkezturiko tartean, erregeek haurrei opariek banatu zizkieten. Aurkezleak ongi aipatu bezala, ea ilusioa, itxaropena eta elkartasuna ailegatzten diren aurten gurera.

zalain
LATEZEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- ☛ Langile autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-Kontraburako laguntzak
- ☛ Enpresa berriz egiteko sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitortpenak
- ☛ Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☛ Bidegaritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bituria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

BIDASOA
TURKIAN - PESTERIAN
BOSTERIAN - AITUMKETERIAN
MORATIAN - KONPANIETAN

T./F. 659 971 442
BERA

JAKINE - GOZTEGIA

948 630 786
Altzale, 19 • BERA

BORTZIRIAK

KIROLA → MARTXOAREN 9AN JOKATUKO DIRA FINALAK LESAKAN

104 pilotari hasi dira eskuz banakako XII. txapelketan

Zortzi kategoriatan banatuta ari dira pilotariak

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako eskuz banakako hamabigarren pilota txapelketa urtarilaren 11n abiatu da. Guztira 104 pilotari hasi dira lehiari, zortzi kategoriatan banatuak (tti-kiak, umeak B, umeak A, kimuak, haurrak B, haurrak A, kadeteak eta jubenilak). Bortz herrietako pilotariak ez ezik, Oiartzun, Hondarribia, Baztan, Malerreka, Sara, Senpere, Baigorri eta Iruñekoak ere ari dira. Partidak, hori bai, Bortzirietako pilotalekuetan jokatu dituzte: Beran asteazken arratsaldeko 4etan, ortziral arratsaldeko 05:30ean eta igande eta larunbat goizeko 09:30etik aitzinera; Lesakan, larunbat goizeko 09:30ean hasita; Igantzin, ortziral arratsaldeko 06:00etan hasita; Arantzan larunbat goizeko 10:00etatik aitzinera eta Etxalarren igande goizeko 10:30ean. Bortzirietako buruzburuko pilota txapelketa hau lau terdiaren barrinean jokatu da, li-gaxka moduan eta dena ongi ateratzen bada, martxoaren 9an jokatuko dira finalak Lesakan pilotalekuan.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean bezala, aurten ere Lesakan pilotalekuan jokatuko dira finalak.

EUSKARA

Korrika batzordea bilduko da hilaren 17 eta 24an Beran

TTIPI-TTAPA

Eman euskara elkari lelopean aurtengo Korrikak Andoain eta Baiona lotuko ditu, martxoaren 14an hasi eta 24a bitartean. Bortzirietatik ere pasatuko da eta hori antolatzeke lehen bilerak egiten hasiak dira. Urtarrilaren 17an, 19:30ean, Berako Beralandetan Bortzirietako Korrika Batzordearen bilera egingen da, hau da, bortz herrietako euskaltzaleei egiten zaie dei. Urtarrilaren 24an, berri, 19:30ean, Beralandetan, Berako Korrika Batzordearen bilera egingen da, zehazki Berako lanak bideratzeko.

LARRALDEA
eta
LINDOURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

TXOTX DENBORALDI IREKIERA. URTARRILAK 18

Dolarea
Eskuakdean egindako
sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa - LENAROI | 948 452121 - 626 494317
LINDOURRENBORDA | Nabaz auzoa - LESAKA | 948 637212

948 631 218
Kantillonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE

BAR Botxo OSTATUA

Zelaiin • BERA • 948 630 052

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

ttipi-ttapa Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...
948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

inprimitzen ditugu

GAZTE OIHUA

GAZTE MUGIMENDUA → ITURENEN BILDU ZIREN ABENDUAREN 26, 27 ETA 28AN

Zukgu-topaketak egin dituzte eskualdeko gazteek

GAZTE OIHUA

Abenduaren 26, 27 eta 28an, Malerreka, Baztan eta Bortzirietako 20 gazte inguru Iturengo Herriko etxeke gelan bildu ziren Gazte Zukgua prozesu eratzaileko hirugarren zatia elkarrekin lantzeko. Eztabaiden artean umore eta jolasik ez zen falta izan eta bertan parte hartu zuten gazteek, "indarberriturik" atera direla erran digute.

Asteazken gauean, azken 30 urtetako gazte mugimendua laburbil-

tzen duen Tximeletak dokumentala ikusiz hasi ziren. Ortzegun osoa pasa zuten gazte estrategia definitzen, ariketa eta eztabaiden bidez, izan talde ttikika edo denok batera : mugimendua eta antolakundea, borroka moldeak, komunikazioa... gai aunitz izan zituzten eztabaidagai. Ortziral goizean azkenik, gazte antolakundearen egitura zehaztu zuten. Gazteek "esperientzia hagitz positibo" izan dela diote, "eskualdeko gazteekin

harremandu eta elkarrekin eztabaidatzeko txoko bat" sortu dutelako. Gainera, ederkijan zutela erran digute, ekarritako bazkari zein haiek prestatutakoekin, eta nola ez, fruta nahi adina!

Prozesua bukatzeaz delat orotarazi digute, martxoaren 2an izanen baita kongresua eta martxoaren 29, 30, 31 eta apirilaren 1ean *Gazte Danbada* jaialdiarekin ongi etoria emanen zaio gazte antolakunde berriari.



ARGAZKA: GAZTE OIHUA

Iturengo topaketan izan ziren gazteetako batzuk.

Iparraldean ere gazteak antolatzen

Kilika gaztetxean Iparraldeko gazte dinamika berriaren aurkezpena egin zuten urtarrilaren 11n, Sara, Senpere eta Azkaineko gazteen eskutik. Izan ere, Hego Euskal Herri- an gazte zukgua prozesuarekin dabilzan moduan, Ipar Euskal Herri- an ere mugimenduan dabilza gazteak, Gaz-

te, orain dun/kenorea lelopean. Azkaineko aurkezpenean joko zein eztabaiden artean pintxoak, musika eta giro ederra izan zuten. Bertzalde, otsailaren 2an Ezpeletan ospatuko den Gazte Egunaren aurkezpena ere egin zuten. Eztabaidak, bazkaria, jokuak eta kontzertuak izanen dira: Zezenaren taldea, Betagari eta Sutagarri.

LESAKA

Giro ederra Zuk-gauean

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 5ean Zukgauen ospatu zuten Lesakan. Arratsaldeko 7etan hasita herriari buelta eman zioten trikitixa doinuaz alaiturik, bertsolariek ostaturaz ostatu joku ezberdinei erantzunez kantatzen zutela. Gazte mordoxka bat bildu zen eta gustura joan ziren ondorengo Arranora afaltzera. Afalondoko ekitaldian, Lesakako zukgua-ko kide batak hitz egin zuen, ordura ar-

te egindakoa kontatu eta gazteak borrokara animatuz. Urtarrilaren 19an Donostian eginen den manifestaldirako deia ere zabaldu zuten. Izan ere, Oarsoaldeko 4 gazte auzipetuei elkartasuna adieraziko baitzaie bertan. Bukatzeko Baztango Ufestuek eta Tafallako Odolkiak Ordaintan taldeek kontzertu ederra eskaini zuten. Herriko gazteak arratsaz gustura daudela erran dute.



ARGAZKA: GAZTE OIHUA

Gazteek gustura afaldu eta gero, kontzertuarekin gozatu zuten.

APARAN, S.A.

BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



KARO HERRIARRIEN



%10eko
DESKONTUA

galtzerdi eta barruko arropetan



Inauteri haizea dabil inguruan

Eratsunen joan den asteburuan egin zituzten. Heldu den asteburuan Elgorriagan izanen dira eta urtarrileko azkenengo astearen bueltan Leitza, Sunbilla, Ituren, Aurtitz, Zubieta eta Arantzako inauterien txanda izanen da.

Joare soinuan batzuetan, musika doinuan besteetan... hasiera desberdina izaten dute. Denek baina, amaiera beretsua: bestako ajea eta oroimenerako pasadizo ugari. Inauteriak, ihauteak, iñauteriak edo ihoteak ospatzeko tenorea iritsi da eskualdeko herrietara. Nequaren hondarrean, usadio zaharrak eta ohitura berriak uztartuko dira bertze urte batez. Euskal Herrian, zaratarekin lurra esnatzeko deia zegoela uste izan da eta horregatik, ereite ospakizun batekin lotu izan dira inauteriak. Horren adibide dira Malerrekako joaldunak. Ohiturari eutsiz, Ituren, Zubieta eta Aurtitz herriak, aurten ere joareen erritmoan lotuko dira. Etxez etxe puxka biltzen aritzeko ohitura ere man-



UTZITAKO ARGAZIAK

Aintzinako jantziak soinean edo mozorro bitxiak jantzita...behin besta lehertzen bada ez du etenik izaten.

tendu da. Hala ibiliko dira esaterako, kolorezko puxka puxkak bizkarrean paratuta Arantzako moxorroak. Sunbillako karroza desfileak eta Leitza-ko atsaretuek ere ez dute hutsik eginen.

Antolatutako egitarauarekin haur, gazte eta helduek izanen dute non gozatua. Izan ere, adina edozein delarik ere, bestarako haizeak jotzen duenean zaila izaten da ihes egitea.

IRUSO
Ostakua
Auzoak • LEITZA
Nalbarria
T: 948 507 025
M: 999 913 294

ONGI PASA IHOTEAK!

TXOKO
taberna

Pintsoak
Otaratekoak

ongi pasa ihoteak

Elbarren, 22 - LEITZA - Tel: 948 510 227

ttipi-ttapa

www.ttipi.net

KIDE
aholkularitza

- Kontabilitatea
- Zergak
- Autonomoak
- Enpresen sorrerak
- Autoen transferentzia
- Errenta aitortpenak
- Aholkularitza juridikoa
- Nominak, kontratuak...

ongi pasa ihoteak

LEITZA: Landa Ind. Suizpi 3 • T: 948 510 990 F: 948 510 429
DONOSTIA: Bergara 23-1go Erk • T/F: 943 42 03 48

AINART
ILEAPAINDEGIA

Ongi pasa ihoteak !!

Elbarren, 67 beheak • LEITZA • 948 510 197

Melo
Pinturak

ongi pasa ihoteak

609 873 178 - LEITZA

www.pinturasmelo.com
melopinturas@hotmail.com



Aliprox

Tel: 948 510 007 - 948 610 857
Elbarren, 20-71 ongi pasa ihoteak!

DENAUTO SAGASPER
Tailerra

Auto konponketa • Gura zerbitzua
Eluseder Ind. • ARESO • T 948 510 810 • F 948 510 917

Eguzkitza
GOZOTEGIA

Elbarren • LEITZA
T. 948 510 041 - 948 610 646

FISIOETXEA
Ane Eguzabal Llata
Fisioterapeuta

Huerto Gutxiak, 93.C • LEITZA • Tel: 948 510 730

Lizarraga
harategia

"GUREA, KALITATEA"
Elbarren 71 - ALIPROX - 948 510 007 - LEITZA

MAIMUR

Herriko Plaza
LEITZA
Tfnoa-Faxa:
948 510 146

Ariztela
DEKORAZIO
TAILERRA

Inauterietako telak

- Kortinak
- Telak, barrak, mekanismoak... eta kortinak egiteko pieza guztiak saioa.
- Ohe eta Etxeko jantziak
- Euskal jantziak
- Sujetatoreak talta haundietarako

T. 948 61 06 11 - ariztela2010@gmail.com
Landa Industrialdea, Suizpi 3 LEITZA (Nafarroa)

LEITZAKO IHOTEAK | Ilbeltzaren 26, 27, 28 eta 29an



EGITARAUA

ILBELTZAK 26, larunbata

Larunbatean **eguerdiko 2etan** Aurrera elkartean **bazkaria** izanen da eskean ibiliko direnentzat. Gero, **arratsaldeko 4ak** aldera, trikitilari, gaitero eta txistulariz lagundurik, egitaraua banatzen eta eskean hasiko dira mozorroak herriko etxeetan.

ILBELTZAK 27, igandea

Larunbateko juergatik deskantsatu ondotik, igande **eguerdiko 12etan** atsaureak Plazatik aterako dira kalejiran Incansables txarangarekin eta gurdiak industrialdetik. Etxeko txikienek ere izanen dute gozamen-erako aukera **txu-txu trenarekin** eguerdian eta **arratsaldeko 16:00etatik aitzinera** Ohitura den bezala, eguerdiko **2:30ean atsauretuek bazkaria** izanen dute eskolako jangelan eta, **6etan**, Incansables txarangak lagunduta, kalejira abiatuko da eskolatik. **Iluntzeko 7etan** bertsolariak izanen dira zineman. Ordu berean Orkesta gizonaren emanaldia hasiko da eta **gauko 11:30etik aurrera** bigarren saioa eskainiko du.

ILBELTZAK 28, astelehena

Lagun asko biltzen dira astelehen eta asteartean baserri baserriko eskean. **Astelehen goizeko 09:00etan** elkartuko dira Aurrera parean Gorritzaran, Arkixkil, Saku-



UTZITAKO ARGAZKIA

Umorerik ez da falta izaten leitzarren artean.

lu eta Erreka auzoetara puxkak biltzera joateko. Baserrietan dabilzan bitartean, herrian, **arratsaldeko 5:00etan**, umeen kalejira izanen da. Ondoren txokolatada eta goxokiak banatuko dizkiete. Gero, **iluntzean eta gauean** Orkesta gizonaren emanaldia izanen da plazan.

ILBELTZAK 29, asteartea

Asteartean **goizeko 09:30ean** dute hitzordua mozorroek Erasote auzora abiatzeko eskean. **Eguerdiko 02:30ean** eskean ibilitakoek bazkaria izanen dute Aurreran eta **arratsaldeko 06:30ak** aldera, Leitzako Atsaureen kalejira izanen da musikaz lagunduta. **Ondoren** Dantzadi taldearen saioa izanen da plazan.

LEIMEN S.L.

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitx
MENDILLORRI 628 725 397 david

Ihote zoriontsuak deno!!!

PERITZA TABERNA

ongi pasa ihoteak eta txistulari ibiliri

LEITZA • 948 610 848



UTZITAKO ARGAZKIA

Ceballos eta bere koadrilakoek azken 25 urteetan egindako karrozetako batzuk.

Joanes CEBALLOS | Leitzako ihotezalea

«la denetaz atera gara eta ez da erraza ideia berriak izatea»

Gaztelu fantasma, mediebalak, erromatarrak... karroza zerrenda luzea egin dute dagoeneko Joanes Ceballos eta bere lagunek. Ez da harrizkoa berak erran digunez «25 urte» daramatzate eta hutsik egin gabe urtero karroza berri bat egiten. Hala ere aitortzen digu «ia denetaz» atera direla eta ez dela «erraza ideia berriak izatea». 25 urtean ihoteak aldatu direla dio, baina beraiek nahiko berdin jarraitzen dutela esan digu «hartaz edo hontaz ateratzea erabaki eta egin egin dugu». Karroza prestatzeko denbora asko behar izaten dutela aitortu du «Azkeneko hamabost egunetan, egunero aritzen gara karroza prestatzeko lanean. Lantokitik ateratakoan elkartzen gara eta goizaldeko orduiak arte geratzen gara lanean sarritan». Izan ere, ez dira karroza tikiarekin konformatzen diren horietakoak «12 metro inguru izanen ditu luzeran eta zabal bost bat metro». Horrek gastu bat ere badakar «nahiz eta beste urtetako materiala erabiltzen den, beti behar izaten dira gauza berriak eta gastu pixka bat izaten da». Zortzi laguneko kuadrila ateratzen direnez, ez dela «horren garestia izaten» gaineratzen du. Aurtengoa prestatzeko lanean ari dira, dagoeneko azken mailukadak ematen ibiliko dira. Ez digu aurreratu zertaz aterako diren «sekretua mantendu eta sorpresa emateko». Ikusi egin beharko da Leitzako karrozetako beteterano hauek zer prestatu duten.

Azkeneko hamabost egunetan, egunero aritzen gara karroza prestatzeko lanean.

ONGI PASA IHOTEAK

EXPLOTACIONES FORESTALES
ZUBILLAGA SARALEGUI, S.L.

Oihen aprobetxamenduak • Oiharboritze lanak
Bertako eta kanpoko zur bilgia • Eguzi irratiko kable bidez ateratzen dugu
Zur-saharria, eslabazkoak, gamioak

T. 948 510 214 • F. 948 510 841 • M. 606 949 130 - 606 949 131
Landa Inel. 1 eta II • LEITZA • info@zubillagasaralegui.es

OGI BERRI
ANDESARTE PANEARRIE
KAFETEGI OKINDEGIA

948 610 974 | LEITZA

ONGI PASA IHOTEAK

Olaia Bazar

ONGI PASA IHOTEAK

LEITZA • Elbarren, 36-37 beheko • 948 610 637

LORDEAK
PAPERTEGIA
JOSTAILERIA
HERRAMONTAK
ESTRIBO TRESNARRAK
JANTZIAK
LANTOKITIK ATERTZEKO
HERRAMONTAK

SAGASTI JATETKEA

ongi pasa ihoteak!

Elbarren, 98 • LEITZA • 948 610 637

EZKAIN eraikuntzak S.L.

ongi pasa ihoteak!!

Lizarraga, 3 • LEITZA
ezkain1@gmail.com
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956

OLIVEIRA VICENTE
eraikuntzak

ongi pasa ihoteak!

Amazabal, 17
LEITZA • 829 418 431
606 307 810

ONGI PASA IHOTEAK

MUSUNZAR
OSTATUA

• Jatetxea
• Logelak

Elbarren, 14 - Tel: 948 510 607
LEITZA

HARATEGIA-VRDAITEGIA
URKIOLA

Elbarren, 94 • Tfnoa: 948 510 467
Elgoien, 6 Tfnoa: 948 510 747

ONGI PASA IHOTEAK

SUNBILLA

MENDI LANAK • ESKABAZIOAK • GARRAIOAK
ZERRAKURAK • GARBITZE MEKANIKOAK
ZERRAKURA, LUBERRI ETA BELAGIEN
MANTENIMENDUA

ELTZURI
ONGI PASA INAUTERIAK!

Leku-Eder, Bosilz - 31791 SUNBILLA - eltzurid@yahoo.es
Tel/Fax: 948 450 504 - 459 867 287 - 499 441 394

SU EGURRA SALGAI: xehetua eta lotetan

**ITTURBURU
OSTATUA**
ongi pasa inauteriak!

Nagusia, 22 - SUNBILLA - T. 948 451 703



**LIZUN
GAZTANDEGIA**
ONGI PASA INAUTERIAK!

Sunbilla - Tel: 948 450 862



Bustitz
ostatu-jatetxea

Gosariak
Bazkariak
Afarriak
635 736 203
SUNBILLA

Zurgin lanak orokorrean

Luis Ibarra
636 701 204

690 388 263
luisibarra@inohimales
Sabatore karrika, 28 - ARANTZA

Armarriak
Lehoak
Afeak
Telatu berriak
Parke flotantea
Tarima
Telatu zaharberitzeak
ongi pasa inauteriak



Tel: 948 450 773
Mugikorra: 619 416 959
Auloa Baserria - SUNBILLA

ongi pasa inauteriak!

ESPELOSIN
eraikuntzak

SUNBILLAKO INAUTERIAK | urtarrilaren 25, 26 eta 27a



EGITARAUA

URTARRILAK 25, ortzirala

09:00 Gazteek **gosaria** Ariztigain kanpalekuan. Ondotik, 2 taldetan banatu eta base-rietara joanen dira, Modesto eta Jose Angel akordeoilariarekin. **Bazkaria** Ixtola eta Exkerneko bordan. **17:00/20:30** Herriko haurrentzako **txokolate beroa eta musika** Agerralderekin frontoian. **21:30** eskean dabiltzanen afaria Itturburun. **Gauean Emakumeen afaria** Ulibeltzak Elkartearen (Sarrerak urtarrilaren 19an salgai). Afal ondotik **sorpresa** izanen da.



URTARRILAK 26, larunbata

10:00 Bustitz ostatuan gosaldutik **eskean** ibiliko dira Modesto eta Joxe Angelekin eta **14:00** etan bazkaria egingen dute Fondan. **17:00/21:00** Umeentzako **berendua** eta disko-jaiak Ulibeltzak Elkartearen. **Gauean** gazteek **afaria** Elortxurin.



MAIDER PETIRENA
Giro bikaina izanen da aurten ere Sunbillan.

URTARRILAK 27, igandea

11:30 Karrozen **desfilea** opilak, gaztainak, hezur salda, tortilla eta ardoa banatuko di-

ra ikusleen artean. Gero **Zozketa:** zerria eta bildotsa. **14:30** Bazkaria Ulibeltzak Elkartearen. **Dantzaldia** Agarralde akordeoilariarekin.

SASOI

eraikuntzak s.l.

Leku-eder, 5 31791 SUNBILLA
T. 948 451 596 F. 948 456 168
info@sasoi.es

ongi pasa inauteriak!

MARIA JESUS HARATEGIA

Bertako bistotoman espezializatua
BERTAKO KALITATEZKO HARAGIA



ongi
pasa
inauteriak

Karrika Nagusia, 1
SUNBILLA
T. 948 451 530



SUNBILLAKO TAXIA
6 plaza + txoferra

633 466 486

Ainhua



Izaro ALTZURI ARRETXEA | Sunbillako gaztea

«100 emakume inguru bilduko gara afarian»

Sunbillan mutil ezkongabeen eskearekin hasiko dira hiru egunez luzatuko diren inauteriak. Baina emakumeak ere ez dute etxean geratzeko asmorik. Aspaldiko ohiturarekin segiz, Emakume afaria eginen dute ortziral gauean. Aurten talde berriak hartu du afaria antolatzeke ardura eta Izaro Altzurik erran digunez, «apur bat egokitu behar izan dute».

Emakume afaria antolatzen talde berria aritu zarete. Nola izan dira prestaketak?

Aurten gazteagoak garen bi kuadrilek hartu dugu ardura. Hala ere, ez gara hutsetik hasi, zeregin horretan aurreko urteetan aritu direnen laguntza izan dugu eta eskertzekoa da. Menua aukeratu, egitekoak banatu... horiek izan dira orokorrean prestaketa lanak.

Aldaketarik izanen da?

Afaria apur bat egokitu behar izan dugu. Antolakuntza lanean ari garen lehenengo aldia denez, ez dugu arrisku handiegirik hartu nahi galerak ez izateko. Horregatik, txartela pixka bat garestitu dugu. Iaz baino bi euro garestiago, 22 eurotan salduko dira. Bestalde, lehenengo urtean afariko menua lau platerrek osatzen zuten eta aurten, seguraski plater bat gutxiago izanen dugu.

Zenbateko parte hartzea espero duzue?

Hamabost urtetik gorako, 100 emakume inguru bilduko gara aurtengoan ere. Urtetik urtera, kopurua pixkanaka goraka doa.

Igandean ere egun handia duzue. Karrozak ez dira faltako, herriko kaleetan...

Aurten gainera iaz baino bi gehiago irtengo dira. Karroza batzuk lan handia izaten dute atzean, bertzeek zerbait erraza egiten dute azkeneko asteburuan presaka... kasu guztietan, ongi pasatzea izaten da helburua.

Hiru egunez besta... zaila da erritmoa mantentzea?

Hiru egun dira eta gogotsu egoten gara noiz iritsiko zain. Sunbildarrok inauteriak bizi ditugu aunitz. Indarrak barrerarik atera eta erritmoa mantentzen dugu. Hala ere, lehen aunitzez jende gehiago egoten zen igandean. Garai bateko giro hori berreskuratu nahi genuke. Jendeari orokorrean esanen nioke gogoia izateko, krisia alde batera uzteko eta bizitzeko inauteriak, diru guttirik ere inauteri ederrak egin eta ongi pasatu liteke.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Izaro Altzuri, inauterietan poliziaz jantzita.

larreta ONGI PASA INAUTERIAK
IGELTSU PROIEKTATUA
SUNBILLA - BERRA
Diruak Aurrera 627.225.514 | 637.921.299
larretaigeltsua@gmail.com

OREBERRI
okindegia
ongi pasa inauterietan
690961616 - SUNBILLA

aurrerakada
lan bertikalak
(ondamiorik gabe)
www.aurrerakada.com
616-413-560 Donibane kalea, 18 Sunbilla 31791 Nafarroa

IRURI MOTOR
Aukerako autoak
Turismo eta furgonetan salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua
ONGI PASA INAUTERIAKI
T. 948 450 399 | Irulha-Irun errep. zaharra | SUNBILLA

SUNBILLAKO UDALAK
Inauteri zoriontsuak opa dizkizue
sunbildar eta bisitari guztioi

Marisol
janaridonda
ONGI PASA INAUTERIAK
Kartea nagusia, 7
948 450 608
SUNBILLA

INAUTERIETAN
zure gosari
eta bazkariak
ARIZTIGAIN
KANPINEAN!!
SUNBILLA • 948 450 540
info@campingariztigain.com
www.campingariztigain.com

MADERAS SANTESTEBAN

Ongi pasa inauteriak!

Mendi lanak
(Pisak, gresen disk)

Bigak

Montajes obran

Teliaturako egiturak
(en: berriz eta berriz berriz eta berriz)

Osagarriak

Autoklabe tratamendua

www.maderasantesteban.com

Arriazo parajea | ZUBIETA | 948 45 08 77
info@maderasantesteban.com



Zubietako udalak inauteri zoriontsuak opa dizkizue zubietar eta bistari guztiei

ERRANDONEA
OSTATVA

INAUTERIETAN
GIDO PAREGABEA

948 450 216 • ZUBIETA

Iturengo Udalak
inauteri zoriontsuak
opa dizkizue
iturendar eta
bisitari guztiei

ITUREN, AURTITZ ETA ZUBIETAKO INAUTERIAK



EGITARAUA

URTARRILAK 28, astelehena

Zubietako joaldunak, mozorro eta karroz-
zek lagunduta, **bisita** egingen diete aur-
titzarrei lehenik. Herriari bira eman eta
salda beroa hartu ondotik Iturenera joa-
nen dira. **Lasagako Zarandia** parean, ltu-
rengo joaldunekin elkartu eta herrian bar-
na buelta emanen dute. Joaldunek aperi-
tiboa hartzen duten bitartean, Iturengo
plazan karroza bakoitzak eta **mozorroek**
beren **ikusbizuna** egingen dute, joaldunek
uxatu baino lehen.



URTARRILAK 29, asteartea

Ituren eta Aurtizko joaldunek bisita buel-
tatuko diete Zubietarrei, batzuen ustez na-
tura ernatzeko eta uzta berri eta ugariak
emateko egiten den ohiturari eutsiz.



URTARRILAK 30, asteazkena

Zubietan egun hau izaten da inauterieta-
ko azken eguna. Bazkaldu ondotik kon-
tuak egiten dira. Ondotik joareak jarri eta
Aurtitz eta Iturendarrei azken bisita egi-
ten zaie ilunabarrean. Aurtitzar eta itu-
rendarrak asteazkenean bazkaria eta arra-
tsaldean etxez etxe ibiliko dira joare eta
trikitilariekin. Ondotik afariak izanen dira
elkartean.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ituren, Aurtitz eta Zubietako joaldunekin
batera, mozorroak ere ibiliko dira.

OTSAILAK 2, larunbata

Kontuen eguna izanen da Iturenen Inau-
terietako azkena. Egun horretan ez da joa-
rerik jotzen. Inauteriak akitu eta hurren-
go larunbatean egin ohi da Iturenen eta
Aurtizen igandean. Iturenen bazkaria izan-
en dute Herriko Etxean. Bazkaldu aitzin-
etik herriko dantzariak bertsolariak eta
aizkora apostua izanen dira herriko pla-
zan. Bazkaldu ondotik dantzaldia eta kon-
tuen afaria.

Aurtitzen xaharren afaria egingen dute igan-
dean.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

30 joare inguruko taldea ateratzen da Iturendik.

Javier SEIN | Iturengo joalduna

«Berezia da herri guztiaren aurrean joare jotzen irtetea»

Inauteriak iristean ohitura da Javier Seinentzat, joare erritmoan Iturendik Zubietarainoko bidea egitea. Hiru urte zituenean paratu zizkioten joareak lehenengoz eta ordutik urtero jantzi ditu. Halaxe eginen du inauterietako ostegunean, baita igande eta astelehenean ere. Mozorrotzeko tartea ere hartuko du, «etxean ditugun trapu zaharra hartu eta pixko bat trasto jantzita». Bestan gozatuko du, izan ere «egunero dago bestarako aukera».

Noiz hasi zinen joare jotzen?

Hiru urte nituenean irten nintzen lehenengoz eta ordutik urtero ibili naiz. Luzaroan ere halaxe jarraitzeko asmoa daukat. Berezia da, herri guztiaren aurrean joare jotzen irtetea. Denak begira dituzu eta oso kontent sentitzen zara momentu horretan. Ituren eta inguruetan tradizioa handia da, betidanik ikusi dugun zerbait da eta ohiturarekin jarraitu beharra dugu. Gu inauterietan 25-30 lagun inguruko taldea elkartzen gara.

Inauteriak nola bizi dituzu?

Arront ongi pasatzen dut. Ostegunean hasten gara joareekin eta asteartera arte gelditu gabe ibiltzen gara. Egunero dago bestarako aukera. Bazkal eta afalondorenak luzatzen dira eta polita da denon artean sortzen den giroa. Orzegunean joareak jotzeaz gain, puxkak hartzen ditugu eta afaria ere izaten da. Larunbatean berriro irteten gara puxka biltzen eta afari ederra ere izaten da. Igandean goizean goizetik hasten gara festan. Gosaldu ondotik joareak jotzen ditugu eta bazkari luzea izaten da. Musika ere izaten da eta arratsean nahi duenak besta egiten du eta arratsin nahi duenak besta egiten du. Egun handia astelehena izaten da, batzuk joare ateratzen dira eta besteak mozorroturik. Bazkaria gero denak bilduta, besta bastante egiten da eta arratsean afaria. Asteartean normalean joare gutxixeago eta mozorro gehixeago izaten da. Egun horretan, Zubietara joaten gara Iturendik, ongi pasatu, eta berriz buelta, bazkaria eta afaria.

Mozorrotu ere egiten zara?

Normalean asteartean joaten naiz lagunekin mozorrotuta. Etxean ditugun trapu zaharrak hartu eta pixko bat trasto jantzita bestara! Aunitzetan erokeriak egiten ditugu, aurpegia tapatzeak egiten du hori.

Zein da egun guztiak irauteko sekretua?

Ongi gosaltzea, goizetik indarrak hartzeko. Urtean behin direnez, erraz irauten da.

Itzapaindegia
EIDEA
Estetika

Asteartea eta osteguna: 09:00 - 13:30
Asteazkena eta ostirala: 15:00 - 19:00
Larunbatetan: Goizez

Kontsejo, 6 | ITUREN | T. 630 633 445


ALTUNA ERRETEGIA

ORTZIRALA EGUERDITIK
IGANDERA ARTE IREKIA
orkestra eta baita ere
Tf. 948 450 410

INDEGIA
ZURGINDEGIA
ONKI PASA INAUTERIAN

948 451 906 | 689 531 012
31745 - AURTITZ
carpi.mindegia@yahoo.es

www.mindegia.net



Tresanea LAGUNEN ETXEA
HOTEL DE TURISMO

PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK

ongi pasa inauteriak!

Kontzeju karrika, 11 | ITUREN | 948 450 287
info@tresanea.com | www.tresanea.com



IMANOL ITURRIA
ZURGINA *ongi pasa inauterik!*
Enpresa eta partikular
T. 661 577 137
E-posta: imaiturria@hotmail.com
Eskatu aurrekontua konpromisarik gabe

PRIMI
ostatua *ongi pasa inauterik!*
Tel. 948 634 052
Goiko karrika, 7 - ARANTZA

GOIENBURU
iturgina
iturgintza, kalefakzio eta gasa
eguzki platak, biomasa eta
egurrezko galdara
ongi pasa inauterik!
Goienburu, 10 - 31790 ARANTZA - 600 902 723

A **aterpe**
Albergo jatetxe ostalua
ongi pasa inauterik!
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net



ARANTZAKO
UDALAK
inauteri zoriontsuak
opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei



ARANTZAKO INAUTERIAK | urtarrilaren 31tik otsailaren 2ra



Mozorro xuriek prest dute hiru eguneko inauteri bestaren egitaraua

EGITARAUA

ILBELTZAK 31, ortzeguna
Goizean, mozorroek Zakutenean gosalduz indarrak hartuko dituzte. **Goizerdian**, eskolako lagunei bisita egingen diete eta haiek prestaturiko kolorezko puxka-puxkak bizkarrean paratuz, inauteri giroan sartuko dira. **Ondoren**, bi taldetan banatu eta herriko musikarien laguntzaz, Aientsa, Azkilarrea, Bordalarrea eta Eguzkialdea auzoetan "puxka puxka", eskean ibiliko dira. **Ilunabarrean**, herrian bilduko dira eta Zakutenean afalduko dute.

OTSAILAK 1, ortziral
Goizean zehar herri kaxkoko etxeetan ibiliko dira eta Pabloenean bazkalduko dute. Arratsean, Sebastian Lizaso eta Jon Maria bertsolariekin **afaria** izanen da Aterpen. Emakumeen afaria berriz Burlada jate txean izanen da. Bai afari batean nola bertzean parte hartzeko, izena jate txetan eman behar da. **Afalondoan**, Agerralderekin dantzaldia izanen da gorapean.



UTZITAKO ARGAZKIAK
Herriko gazteak puxka puxka eskean emanen diete hasiera inauteriei. Igandean mozorroean txanda izanen da.

OTSAILAK 2, larunbata
Eguerdian mozorro zuriek Burladan bazkalduko dute. **Arratsaldean**, haur eta guraso mozorrotuen desfilea eta berendua izanen dira. **Mezaondoan**, aizkora apostua izanen da frontoian eta bikotekako norgehiagokan, Xabi Ajusta eta Donato Larretxea; Julio Lukanbio eta Otaegi; eta Olasagasti eta Iñaki Mikelarena "Arrixko" ariko dira. **Ondoren**, mozorroek Ekaitza Elkartean afalduko dute eta Hobenuke taldearekin dantzaldia izanen da gorapean.

LA MASCARA
Inauterietako mozorroetan den-dena daukagu
Era guztietako osagarrien salmenta
Makillaje profesionala
www.lamascara.es
mascara@lamascara.es
Abejeras, 6 | IRUNEA | T./F. 948 25 00 04



KIROLA → URTEKO LEHENBIZIKO ATERALDIA EGIN DUTE MENDAURRERA

Sariak emanen ditu aurten Ulibeltzak Mendi Taldeak

Irteeretan gehien parte hartzen duenari eta argazki onenari

Maider PETRIRENA

Urtarrilaren 7an Ulibeltzak Mendi Taldeak bere 2013 urteko lehen-dabiziko irteera egin du Mendaurrera. Oso denbora onarekin eta giro ederrean egin da. Uli-

beltzak Mendi taldeetik jakinarazi dutenez, aurten sari bereziak emanen dituzte, taldeak antolatzen dituen irteeretan gehien parte hartzen duenari, alde batetik eta urteko argazki onenaren saria, bertetik. Argazki onenaren lehiaketan parte hartzeko, gutxienez borts irteera desberdinetako borts argazki bidali behar dira helbide honetara: ulibeltzak@hotmail.es

Lehiaketa honetan parte hartzeko derrigorrezkoa da federatua egotea.

MUS TXAPELKETA

Abenduaren 22an Ulibeltzak Elkarteak mus txapelketa antolatu zuen. Bertan 10 bikotek parte hartu zuten eta irabazleak Pattere eta Juan Miguel izan ziren. Bigarrenak berriz Teresita eta Jose Martin anai-arrebak.



ARGAZKA: MAIDER PETRIRENA

Ulibeltzak mendi taldekoak Mendaurren.



ARGAZKA: JOSUNE AGIRRE

Mus txapelketako finalistak.

ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Urtaskak kantatzen

Urtarrilaren 1ean, urte berriari hasiera emateko urtaskak kantatzera atera ziren haurrak. Herrian nola baserrietan auzoka banatu eta 12ak puntuan kantatzeari eman zitoten. Erran beharra da eguraldiak ez zuela sobera lagundu baina halere han ibili ziren kanta eta kanta, goxoki, fruitu lehor, mandarinak... pila bat bilduz. Zer nolako boltsak bete zituzten.



ARGAZKIA: ANA URROZ

Mari Domingi ere izan zen eskolan

Abenduaren 21ean, eskolako azken egunean Mari Domingi izan zen eskolan. Agur egiteko leku nahikorik ez zenez, gosalduta eta frontoira jautsi ziren. Han, gela bakoitzak prestatutako kanta eta antzezlanak erakutsi ondotik, denek bere eskutitzak eta muxu goxoak eman zizkieten Mari Domingiri.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

Erregeei ongietorria eta Belen biziduna

Urtarrilaren 5ean Meltxor, Gaspar eta Baltasarrek bertze urte batez Sunbillara egin dute bisita. Haurren urduritasunak kentzeko opari ederrak ekarri zizkieten. Atsaldeko 6.30etan izan da meza eta horren ondoren elizatarian egin diegu ongi etorria erregeei. Elizatarian bertan jaiotza biziduna izan genuen, Pablo Maritxalar, Maitane Ibarra eta Ibai Maritxalarrek osatu dute.

DONEZTEBE

GIZARTEA → LIBURUTEGIAREN ONDOAN

Adintuen bidaiei buruzko hitzaldia eskainiko da urtarrilaren 17an

Udala eta Lesakako Barceló Bidaiak dira antolatzaileak

TTIPI-TTAPA

Imserso erakundearen bitartez edo adintuei eskaintzen zaizkien bidaiei buruz solasteko hitzaldia egingen da urtarrilaren 17an, ortzegun arratsaldeko 7:00etan garai bateko erakusketa aretoan, liburutegiaren ondoan. Doneztebeko Udalak eta Lesakako Barceló Bidaiak enpresak antolatu dute ekimena.

Doneztebarrak eskaparate lehiaketa eta tonbola

Eguberri mugituak izan ditu Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak. Alde batetik, hainbat ko-

mertziok besta egunean ere atea ireki ditu. Horretaz gain, Kriston Tonbola egin zuten abenduaren 29an plaza. Guzira 15.000 txartel banatuak zituzten eta 55 sari eman ziren. Txistorra, jokuak eta musika ere izan ziren. Akitzeko, erakusleihen lehiaketako sariak eta diplomak banatu zituzten: lehen saria Belen lore-dendarentzat izan zen; bigarren saria Kukuka haur arropadendarentzat; hirugarren saria Mendia Farmaziarentzat eta Gure Kafetegiak (Ogiberri) publikoaren saria jaso zuen.

Doneztebe Futbol taldeak webgunea

Doneztebe Futbol Taldearen albisteak, emaitzak eta argazkiak Internet bidez segitzeko aukera izanen dute zaleek, www.doneztebefutboltaldea.com helbidean.



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

Ehun lagun elkartu ziren Mendaurren Urtezahar egunean

Ehun mendizale inguruk bat egin zuten Urtezahar egunean Erreka elkartearen deialdiarekin eta Mendaurrera igo ziren, giro ederrean.



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

200 korrikalari baino gehiago San Silvestre lasterketan

Zazpigarren edizioa bete duen San Silvestre lasterketan 200 korrikalarik baino gehiagok parte hartu zuten, 120 korrikalari helduen kategorian atera ziren eta 85 kategoria tikiagoetan. Mutilen senior kategorian, Iñigo Agirre herritarrek bertzeak baino koxka bat goitiago dagoela erakutsi zuen berriz ere. Bigarren ere bertze doneztebar bat izan zen, Xanti San Miguel eta hirugarren, Joseba Larralde beratarra. Nesketan Maika Ariztegi iturendarra izan zen garaile, Teresa Jadraque bigarren eta Maria Telletxea doneztebarra hirugarren.

MALERREKAKO ZONALDEA
(Nafarroa)

MARTXAN DAGOEN OKINDEGI KAFETEGIA ESKUALDATZEN DA

Errendimendu osoa familia arrazoiengatik

TEL. 673 268 260

ARRATE EJTETIKA ZENTROA

ttipi-ttapa %10eko DESKONTUA

Sareydor Eternal kmetan

Egin zaituz **ttipi-ttapa**ren harpidedun

(0034) 948 63 54 58

ELGORRIAGA

OSPAKIZUNA → URTARRILAREN 18 ETA 19AN

Giro ederra izanen da aurten ere ekitaldiz beteak datozen Inauterietan

Urtarrilaren 26an mus txapelketa eta kontuak egiteko afaria eginen dituzte

Mattin LARRALDE

Eguberriak joan ondotik, Elgorriagako herritarrak inauteriak prestatzen buru belarri sartuta gaude. Urtarrilaren 18an hasiera emanen zaie ospakizunei, arratsaldeko 8etan trikitixak alaiturik bueltatxo emanen baita herrian

barna. Ondoren afaria izanen da Hilarion jatetxean.

Urtarrilaren 19an, larunbat goizeko 9:00etan gosaria izanen da, moztorak berotzen hasteko. Gero, herriari buelta emanen zaio, puxkak bilduz etxez etxe. 14:30ean bazkaria izanen da Hilarion jatetxean. Arratsaldeko 5ak aldera, moztorrotutako jendeak desfiletxoa eginen du. Urtetik urtera jende gehiagok parte hartzen du eta aurten ere ziur jende asko izango dela, gero eta indar gehiago hartzen ari di-



ARGAZKIAK: MATTIN LARRALDE

Aurten ere giro zoragarria izanen da Elgorriagako inauterietan. Larunbat arratsaldean moztorrotutako jendeak desfiletxoa eginen du.

relakoz herriko iñauterak. Zozketa ere eginen da eta sariak hauek izanen dira: lehenbiziko saria Hilarion jatetxean bi lagunentzako afaria; bigarren saria Elgorriagako bainuetxean bi zirkuito; hirugarren eta laugarren sariak, bakoitzarentzat bi gosari Julia goxotegian (orain Edurnek eramaten duena).

21:00etan afaria izanen da Hilarion jatetxean eta ondotik, Herriko Ostatuan musika izanen da Frantxisku akordioi jotzailearekin. Egun osoan ere, Frantxisku bera ariko da giroa alaitzen.

KONTUEN AFARIA URTARRILAREN 26AN

Hurrengo larunbatean, urtarrilaren 26an,

mus txapelketa jokatu da arratsaldeko 17:00etan. Arratseko 21:00etan, berriz, kontuak egiteko afaria eginen da, inauteriak akitzeko. Nolanahi, nahi duenguztia gonbidatua dago herri honetako inauteak dastatzera. Herri ttikia da, baina bertako jendeak giro zoragarria jartzen du.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → URTARRILAREN 17AN

San Anton egunean kanta berria estreinatuko dute baselizan

Migel Arregik egin du letra egunean kantatzeko

Fermin ETXEKOLONEA

San Antongo baselizan ospakizuna eginen da aurten ere urtarrilaren 17an. Goizetik meza izanen da. Udalak pintxoak eta edariak ere banatzen ditu elizatian. Arratsaldean, herriko estalpean musika izanen da, herriko musikariekin eta arratsean ere somatuko dela egun berezia dela, aurten ere astegunez egokitu den arren. Duela urte batzuk baseliza berritu zenetik indar berriz ospatzen da San Anton eguna Zubietan. Aurten, gainera, nobedadea ere izanen da.

San Antonak ez zuela bere kanturik, baina Migel Arregik asmatu ditu bertso batzuk eta

egun horretan kantatuko dituzte mezan, adoratzeko denboran.

Inauteriak

Eguberrietako ospakizunen ondotik inauterrien txanda izanen da. Urtarrileko azkeneko igandean hasiko dira. Joan den urtean bezalaxe, Patxiku Mitxelena izanen da sukaldeko arduraduna. Urtero bezala, giro polita izanen da ospakizun berezi honetan, baina xehetasun gehiago jakin nahi duenak, gehigarrian ditu.

Joare besta Errege bezperan ere

Errege bezperan joareen besta egin zen, urteroko ohiturari eutsiz. Harat eta honat ibili ziren joaldunak, Zubietatik Iturenara, Aurtitzen barna, handik buelta... Inauterietako bidea ikasteko ez dago gaizki!



UTZITAKO ARGAZKIA

Sei basurde bota zituzten

Sei basurde bota zituzten herriko ehiztariek Eguberri Egunean. Bezperako txanpainak ez zien nonbait punteria lainotu, ez baita normala egun bakarrean sei basurde botatzea.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Mari Domingi lehen aldiz etorri da Zubietara

Mari Domingi lehenbiziko aldiz agertu zen Zubietako Eguberrietan. Haur eta helduek asko disfrutatu zuten bisitarekin.



Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

TXOTX DENBORALDIAREN
IREKIERA
URTARRILAK 20

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

GIZARTEA → AZAROAZ GEROZTIK

Bisita gidatuak eskaintzen dituzte Irungo Ola sagardotegian

TTIPI-TTAPA

Sagardotegia eta sagardoa egiteko prozesua hurbiletik ezagutzeko aukera dute Irungo Ola sagardotegiko bisita gidatuetan. Bi bisita gidatu jarri dituzte aukeran. Bata sagardotegia eta sagardogintza gaintek erakusten dituen da eta bertzea sakonago ezagutzeko aukera ematen duena. Erreserba aurretik egin behar da, 943 623130 telefonora deituta.

Bisitarik luzenak ordu eta erdiko iraupena du. Ola burdinolaren historia ezagutzetik hasi, eta sagardoaren elaborazio prozesu osoa ikusteko aukera ematen da. Sagastietatik hasi, tola-rean jarraitu eta upeltegian akitu arte, pintxo bat dastatuz. Euskaraz, gaztelerez edo ingelesez egin liteke bisita, asteartetik ortziralera 11:30ean, gutxienez 20 laguneko taldea osatuta.

Bisita laburrago bat egin nahi dutenek, ordu erdiko iraupena duen bisita dute aukeran. Euskaraz edo gaztelerez egin liteke bisita, asteartetik ortziralera 13:00etan edo 20:00etan egin liteke.

Bisitaren ondotik, bertan bazkaldu edo afaltzeko gogoia izanez gero, eskaintza bereziak jarri dituzte. Bisita eta eguneko menua, 18 euroren truke, bisita eta sagardotegiko menua 35 euroren truke edo haurrentzat pentsatutako bisita eta menua 12 euroren truke.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bisita gidatuen kanpainako aurkezpena Ola sagardotegian

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK.

“GIZARTEAREN GARAPENEAN LAGUNTZEKO IKERLARI IZAN NAHI NUEN ETA UNIBERTSITATEAK ATEAK IREKI DIZKIT.”

Alaitz Zabala, Biomaterialen ikerketa lerroko ikerlaria.



PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Go Eskola Politeknikoa

GOIERRI • URTARRILAK 24 osteguna, 17:30
ARRASATE • OTSAILAK 2 larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI • OTSAILAK 2 larunbata, 11:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA • OTSAILAK 2 larunbata, 11:00
ARETXABAETA • OTSAILAK 2 larunbata, 11:00

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ITUREN

OSPAKIZUNAK → JOARE SOINUAK URTE HASIERATIK

Oporretatik bueltan, inauteriak badatoz

Arkaitz MINDEGIA

Pulunpa eskolako ikasle eta irakasleak oporren bueltan dira. Ikasketak burubelarri hartu dituzte, baina orain inauterietako prestatzen ari dira. Urtarrilaren 25ean izanen dute eguna. Guraso elkarteok antolatuko dute bazkaria ikasle guzientako. Ondoren etxetik ekarritako mozorroekin kalejira egingen dute eta bertan izanen dira joaldun ttikiak ere. Ondotik, egunari bukaera ederra emateko txokolatada izanen dute.

Errege bezperak itxi zituen eguberrietako besta eta oporrak. Arra-

tsalde partean joaldun ttikiak aritu ziren joarak gerrian jarrita beraien joare soinuak zabalduz Ituren eta Aurtizko xokoetara. Gauean, Iturengo Ostatuan eta Aurtizko elkartean bildu ziren afaltzera eta goizaldera arte Joxe Angel akordeoilariaren eta herriko trikitilarien doinuak airez aire zebiltzan bitartean, herrian barna Aurtitz eta Iturengo joaldun gazte, zahar, neska ala mutilen doinuekin ibili ziren.

Orain herriko bizilagun guziek edo gehienek maite ditugun besta politen esperoan gaude, gutxiago falta baita



inauteriak ailegatzeko. Egun dexente badira, urtarrilaren 24tik otsailaren 3ra, Iruñeko San Fermiñen pare, nahiz eta tartean atsedenaldira itxi batzuk hartuko diren.

Egun horietan puxka biltzen ibiliko dira. Astelehena eta Asteartean joare soinuak gaitenduko dira eta tartean desfilean mozorroak eta karrozak izanen dira. Xehetasun gehiago gehigarri berezian.



ARGAZKIAK: EDURNE MIKEO
Errege bezperan Aurtitzen joareekin ibili ziren gaztetxoak.

DONAMARIA

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 1ETIK 3RA

Mozorroz mozorro eta auzoz auzo hedatuko dira inauteriak

Otorduak eta musikak ere ez dute hutsik egingen aurten

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Aurtengoan ere, ihauteriak gainean ditugu, otsailaren 1etik 3ra izanen baitira.

Ostiralean, bazkaria izanen da herriko ostatuan, eta gero herriko gazteak auzoetan ibili-

ko dira, Moha eta Ainhoa trikitilari eta panderojoleen laguntzaz. Ondoren, martxa ez gaitzeko, afaria izanen da herriko ostatuan.

Larunbatean, goizean goiz elkartuko dira gazteak herriko ostatuan gosaltzeko, eta denak ederki gosaltu eta gero, auzoz auzo ibiliko dira. Ondoren, otordu eder bat egin eta gero, arratsaldean berriro ere etxez etxe ibiliko dira.



Goizez eta arratsaldez, Xabi Urtasun eta Maialenek alaituko dute giroa. eguna ederki bukatzeko, herriko ostatuan afaria izanen da, eta gero giro ederrarekin gaupasa izanen da Modestok alaiturik.

Igandean, bazkaria izango da herriko ostatuan kontuak egiteko, eta gero arratsaldean, txokolatada izanen da, Anima zaitzte!!!



ARGAZKIAK: IZASKUN GOÑI TELLETXEA
Gazteenek ederki pasatuko dute inauterietan.

EZKURRA

GIZARTEA → ERRETIRATUEN ELKARTEA

Bixenta Perurena da Arkupeak elkarteko ordezkari berria

Pantxito Gorostiaga eta Reyesen erreleboa hartu du orain

Fernando ETXEBERRIA

Bixenta Perurenak hartu du Arkupeak Elkarteko Ezkurrako ordezkaria izateko ardurra. Azken urteetan Reyesek bete du paper hori, Pantxito Gorostiagaren egindako lanari jarraitzea eman eta erreleboa eskatu du. Pantxito urte luzez izan zen Arkupeak elkarteko zuzendaritzako kidea eta behar hil ondotik, emazteak eta arreba familiako norbaitek hutsik geratutako postu hori betetzea nahi izan zuten. Hala, Reyesek, Pan-

txito Gorostiagaren errainak bete zuen bere tokia. Lerro hauetatik eta Arkupeak Elkarteko Zuzendaritza taldearen izenean, eskerak eman nahi dizkiogu Gorostiaga-Goñi familiari elkartearen alde egindako lanagatik.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Bixenta Perurenak hartu du Gorostiaga-Goñitarren erreleboa.

MEMORIA HISTORIKOA

Pilotariak ez ezik, hainbat pertsonaje ezagun eman ditu herriak

F. ETXEBERRIA

Ezkurra, herri berezia liburuan 1936ko gerraren inguruko pasarte bat biltzen da. Horren arabera, 73 gaztek hartu zuten parte: 19 zauritu, 3 mutilatu eta 4 hildako izan ziren.

Pasarte horretan guztien izenak agertzen dira eta gerrak eragin zizkieten ondorioen inguruko xehetasunak ematen dira. 73 horietatik 4k hierarkia militarrean graduak lortu zituzten. Gerra amaiztean, gehienak herrira itzuli ziren,

baina bik Francoren ejerzitoetan eta erakunde ofizialetan parte hartzen segitu zuten.

Miguel Mariezkurrena izan zen horietako bat. Burgos, Okaña eta El Duesoko gartzetako zuzendaria izan zen eta amaieran inspektore generala. Gerrak ondorioak ere jasan zituen: izterrean zauritu zuten, hatz bat galdu zuten eta lepoan, aurpegian eta eskumuturrean su-armaz zauritu zuten.

Miguel Garziarena berriz, bolondres joan zen 21 urterekin ge-

rara. Alferrez gisara hasi zuen bi-dea eta gero militar izatera iritsi zen, koronel gradua lortu eta Donostiako polizia munizipalaren nagusia izatera iritsi arte.

Juan Elizalde ere, alferrez eta gerrako mutilatua izan zen. Ezkurrako alkate izan zen urte askotan. Bere *balentrien* artean, 1956ko urtarilaren 11n, herriko tarbarnarietara idatzi zuten eskutitza dago. Bertan *agarrao* dantza egitea debekatzen zuten, «dantza exotikoa, arrotza eta moralik gabekoa» zelakoan.

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → BI AUZOETAN IBILI DIRA

Gabonetako kantuak auzoz auzo hedatu dituzte orain ere haur eta helduek

Kalejira eta gero berendua hartu zuten Olentzerorekin

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala eta eguraldi ona zela medio, herriko haurtxo eta heldu talde bat elkartu ziren arratsaldeko 3:30ean Labaiengo plazan. Etxez etxe gabo-



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Karrikarondan ibilitako taldea.

netako kantuan arituz, Labaiengo herrian, Beintzako auzora hurbildu ziren hango etxeetan ari-

tuz. 6:30ak aldera bukatu ondoren ostatuan berendua eta txokolata izan ziren indarrak

berreskuratzeko. Bertan izan zen ere Olentzero taldean kantuan eta txokolata hartzen.

ARKUPEAK

GIZARTEA → ERRETIRATUAK GOGOTSU

lazko balantzea egin eta aurtengorako asmoak azaldu ditu Arkupeak elkarteak

Peru eta Machu Pichu ezagutzeko asmoa dute

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteak herrietako ordezkariak abenduaren 19an elkar-tu ziren egoitzan, intereseko gai ei buruz aritzeko. Pedro Bañares presidenteak joan den urtean egindako ekintza, bidaia, ikastaro eta solasaldien inguruko balantze zehatza egin zuen. Denera, 3.182 bazkidek parte hartu zuten bidaietan eta Arantzazukoa izan zen parte hartze handiena izan zuena, 325 lagunekin.

Parisera egindako bi-

daiaren ondotik, autobuseko jarlekuak banatzeko moduarekin ez zeudela konforme azaldu zuten zenbait bazkidek. Hortaz, bozketa egin eta hemendik aitzinera, lehenbiziko egunetik azkenera jarlekuak manenduko dira, baina bueltarakoan berriz ere zozketa egingen da.

Nafarroan, krisia somatzen ari diren erretiratu eta pentsiodunen eskaerarekin bat egiteko sortu den plataformarekin bat egitea ere erabaki zuten, baita janari eta arropa bilketan eta banaketan lan egiten duten bolondresen taldeekin ere. Hortaz, ohiko bidaia, omenaldi, ikastaro eta hitzaldiekin batera, krisi garai hone-



Herrietako delegatuek abenduaren 19an egin zuten bilera Doneztebeko egoitzan. ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

tan beharreen dauden sektoreei elkartasuna ere adieraziko die Arkupeak elkarteak.

Oraindik ere data gehienak zehaztu gabe badaude ere, aurtengo bidaiak egingen dituzte erretiratuek Aralarra, Xabierrera, Arantzazura, Lezora, Lodorasa, Benidormera, Puente Viejsora... Horietaz gain, Donostiara ateraldia eta Aginagako sagardotegian bazkaria, Kantabriara, Asturiase- ra, Galiziara, Gasteiz- era, Añanako Gatzagara,

Karlomagnoaren bidera, Kanariar Uharteetara, Bordeleko feriara eta urrunena, Perura eta Machu Pichura bidaiak egingen dituzte.

Omenaldiak urrian egingen dira eta joan den urteko akatsak zuzentzen saiatuko dira, bazkide batzuk baldintzak beteta ere, ez baitzituzten omendu. Horretarako, herri bakoitzeko bazkideen zerrenda osatu da, beraien jaiotza data-ekin, zehatz-mehatz jakiteko zeinek betetzen dituzten baldintzak.

Nafarroako Kutxaren dirulaguntzak 35.000 eurotik 8.000 eurora jautsi dira eta horregatik, *Zuk aukeratu, zuk erabaki* programan Arkupeak elkartearen egitasmoa aukeratzeko eskatu dute. Egitasmoa aukeratzeko duen bazkide bakoitzeko 10 euro ematen zaizkio elkarteari eta 2.000 lagunera ailegatzea da helburua. Laguntza horrekin, defizitaren beldurrik gabe, hainbat ekitaldi antolatuko ditu Arkupeak elkarteak.

ARKUPEAK ELKARTEKO MENDI TALDEA

Santiago Bideari ekin nahi diote aurtengorako

TTIPI-TTAPA

Lehenbiziko urtea bete du Arkupeak elkartearen mendi taldeak. Lehenagotik ere, 2000. urtean zenbait erretiratutako baztango Santiago Bidea egin zuten, Dantxarinetatik Arabako mugara, baina Arkupeak elkarteak mendi talderik ez zenez Goiz Mendi taldea sortu zuten. Elkartearen 2001eko aldizkarian ageri ziren Santiago Bide osoa eta Galiziara bidaia egin zuten erretiratutakoak. Talde honek bi aldiz egin du bide hori eta duela bi urte kostako bidea ere egin zuten, politagoa, baina aldi berean gogorragoa dena. Aldi berean, hilabetero ateraldiak egin dituzte eta urtero egun batzue-

tako ateraldia Pirinioetan. Esperientzia horrek bultzatuta, 2011ko abenduaren 28an egindako delegatuen bileran erabaki zen Arkupeak elkartearen baitan mendi taldea sortzea. 2012an inguruko mendien barna ateraldiak egin dituzte: Larun (elurtua zegoenez Ibardin inguruan ibili ziren), Arizkun eta Erratzuko itzulia, Bertizko Aizkolegi, Leitza-ko Mandoegi, Aralar, Otsondo-Lezeta, Belate-Gaztelu... Uztailen, 34 bazkidek bost egun egin zituzten Pirinioetan. Formigalko hotolean ostatu hartu eta Artouste, Midi, Anayet, Formigaletik Canal Royarako zeharkaldia, laku urdinak (batzuk Infiernosera igo ziren,



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Hileroko eta Pirinioetarako ateraldiak egiteaz gain, Santiago Bideari ekiteko asmoa du aurtengorako mendi taldeak.

3.000 metroko mendia) eta Ordasako Cola de Caballo... 2013an ere hilabeteroko eta Pirinioetako ateraldiekin segitu nahi dute mendizaleek. Santiago Bidea egitearen aukera ere aztertzen ari dira, ha-

sieran egun bakarrek ateraldiekin eta Bianatik aurrera, zenbait eguneko ateraldiekin. Autobusa osatzeko, ibiltariak ez ezik, oinez ibili gabe turismoa egin nahi dutenek ere parte hartzea aurreratu da.

UDALA → GIZARTE ARLOA LEHENETSIKO DA

2,41 milioi euroko aurrekontua onartu du Udalak

Bilduko 9 zinegotziek alde bozkatu zuten eta oposizioko biek kontra

JM BARRIOLA

Abenduaren 28ko udal batzarrean, 2013 aurrekontuak onartu zituzten. Guztira 2,41 milioi euro izanen da, joan den urtekoa baino txikiagoa. Honen arrazoia inbertsio nagusiak aurri-kusten diren Nafarroako Azpiegitura Plana amaitu izana da.

Aurrekontuetan ez da aurreikusten inbertsio haundirik egitea, erreallitatean, ordea, Amazabal auzoko eta ETAPeko lanak 2013an egingen dira, nahiz eta 2012ko kontuetan aurreikusiak izan. Hauetaz gain, mendiko lanak (30.000 euro), UE50eko urbanizazio lanak (52.000 euro) haur eskolako eta Erleta eskolako hobekuntza lanak (90.000 euro) eta beste hainbat lan txiki egingo dira: baserrietako seinalizazioa, guardetxean moldaketak, eszenatokia, lberon indusketa lanak ...

Arlo sektorial desberdinetako gastuei eskainiko zaie lehentasuna: gizarte zerbitzuetan, hezkuntzan, euskara eta kulturaren, herriko eragileentzako laguntzetan... Horrenbestez, hezkuntzan 487.184 euro gastatzea aurreikusten da, euskara eta kultura arloan 313.200 euro, on-

gizarte eta kirolean 312.179 euro, Plazaola Partzuergoan eta Cedernan 56.930 euro, mantenimendu lanetan 169.068 euro...

Azkenik, aurrekontuetan tasa eta zerga gehienak igoerarik gabeko mantentzea aurrizkustuten da.

Eguberrietako jaiak joan zaizkigu

Errege bezperan, hauen etorreran ondoren, Atekabeltzen Herriak antolatutako elkartasun afarian ehun bat lagun bildu ziren. Eguberrietako 13 saski zozketatu ziren. Goizean haurrak eta gurasoak herriatik ibili ziren txintxarriekin soinu atez, giro berexia ezarriz. 4an gauerdian herriko larriak ibili ziran joareak eta kulunkekin herriko txokoak zalapartaz betez. Urtezaharrean ere gaupasa haundia izan zen herrian pesta giroa nagusi zela, eta aurretik Orantzaroa ospatu zen, etxeetako balkoiak apainduta azaldu zirelarik egun horretan. Egurraldiak lagundu egin du eta partehatze handia izan pesta hauetan.

'Lo imposible' filma asteburuan zinean

Ilbeltzaren 18 eta 20an *Lo imposible* filme entzutetsua botako dute zinean. Ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean izaten dira saioak, baina honek saio berezia ere izanen du, igandean 17:00etan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ihoteriak hortxe ditugu

Eguberriko ospakizuna pasa berria izan arren hortxa ditugu ihoteriak ate joka. Aurten 26 larunbatean herriko eskea egingen da. 27an zaldun-ihotean herriko kale nagusian, gurdi-mozorrotoak ibiliko dira, lehengo urtean bezela, Udalak pabeioi bat alokatu du, nahi duten herritarrak gurdi hauek prestatu ahal dezaten. Astelehen-ihotean ohitura zaharra denez, Gorritaran, Arkiskil, Sakulu eta Erreka baserri auzoetan eskean ibiliko dira herriko gazteak eta ez ain gazteak, parranda kaletik mendira eramanez. Arratsaldean gaztetxoek aukera izanen da, kalejira koloretsu bat egingen dutelarik. Astearte-ihotean Erasote auzoan eskean ibiltzeko eguna, arratsaldean berriz azken urte hauetan bezela garai bateko ihoteri mota berreskuratuz Leitza eta atsaureak azalduko dira seietan herriatik barrena kalejiran.

KIROLA

Euskal Herria mendi erronka Leitza egingen da maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean

JM BARRIOLA

Aurten erronka ausarta izanen dugu herrian eta inguruetan. Mendi lasterketa hain zuzen. Esait taldeak eta herritar talde batek lagunduta antolatzen ari dira Udalaren laguntzarekin.

Euskal Herriko federazio nazionalak eta selekzioen ofizialtasuna aldarrikatzen duen Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldeak (ESAIT), *Euskal Herria mendi erronka* mendi lasterketa hau antolatzen du eta parte hartzera gonbidatzen ditu mendizale eta kirolari guztiak.

Laisterketak 60 kilometroko luzera izanen du, 6.000 metroko gainbeherarekin, Leitza izango du abiapuntu eta helmuga, mendiz denbora guztian. Gehienez ere 500 kirolarik parte hartzeko aukera izanen dute, goienez ere 13 orduko lana izanen da. Korrikalariak eta mendizaleak animatu eta egun osoan zehar eskainiko diren ekimenetan parte hartzeko deia egiten dute.



Egitaraua

2013/05/31, OSTIRALA

- 18:00-20:00: Dortsalen banaketa Leitza plazaan.
- 18:00-20:00: Korrikalariaren azoketa.

2013/06/01, LARUNBATA

- 05:00-06:00: Dortsalen banaketa Leitza plazaan.
- 06:15-06:45: Korralittoa.
- 06:45: Aureskua.
- 07:00: Irteera.
- 10:00-13:00: Herri kirolak umeentzat.
- 13:00: Lehen korrikalariak iritsi.
- 18:00 Sari banaketa.
- 19:00 Herri afaria.
- 20:00 Erromeria.

GOIZUETA

KIROLA → HILABETEAN BEHIN

Herria ezagutzeko mendi martxak antolatuko ditu Umore Onak

Lehenbizikoa urtarrilaren 27an egingen da

TTIPI-TTAPA

Herriko txokoak eta bideak ezagutzeko helburuarekin, hilabetearen behin mendi buelta bat antolatuko du Umore Ona elkarteak *Goizue- ta ezagutzen* izenburupean.

Dagoeneko bi mendi buelta zehaztuak dituzte. Lehenbizikoa, urtarrilaren 27an egingen dute. 2 eta 3 ordu bitarteko bidea izanen da eta goizeko 9:00etan aterako dira plazatik. Ibilbidea: Herria-Muxulinborda-Nekuko hariztia-Kuxingo borda-Txamora berri-herria.

Bigarren ateraldia otsailaren 24an izan da eta 3 ordu inguruko bidea egingen dute,

9:00etan plazatik abiatuta, Fermiñene, Sarran, Artantxu, Irolako borda, Biutako borda eta Attaborroko hariztian barna ibiliz, herrira bueltatzeko.

Udal erabakiak

Azken batzarretan zenbait mozio onartu ditu Udalak. Alde batetik, Nazioarteko Eguna zela eta, emakumeengana indarkeriaren aurkako adierazpen instituzionala onartu eta zenbat konpromiso hartu zituen; gaixo dauden presoan eskubideen aldeko proposamena ere onartu zen, baita eskualdeko Nekazal Ganbara zerbitzua mantentzeko proposamena ere. Azkenik, etxe kalera tzeen egoera larriaren aurrean, horren kontrako proposamena onartu zuen udalak.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Maingeneko granja Gabon gauean erre

Maingeneko Juanjo Elizalde Alkainzuriain auzoan daukan granja erre zen abenduaren 24an. Lasto fardoak erre ziren, baina behiak atera ahal izan zituzten.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Gaztetxoek ere txapelak ekarri dituzte herrira

Iker Salaberria eta Iruñeko Jon Mariezkurrena txapeldun izan ziren Nafarroako Kirol Jokoetan. Finalean, 18 eta 6 irabazi zieten Oberenako Mata eta Cordon bikoteari. Antton Apezetxea txapeldun izan zen Lizarran, 2000. urteko infantilen mailan. Abenduaren 29ko finalean 18 eta 9 irabazi zion Oberenako Matari.



ARGAZKIA: A. SALABERRIA

Bordazpiko kalabazak

Bordazpiko Ander Mitxelena Bilabona ageri da argazkian, bere gurasoen baratzean egindako kalabazekin. Batek 36 kilo ditu eta besteak gutxiago.



ARGAZKIA: IGOR ELIZEGI

Futbito txapelketa mixtoa jokatu zen Egeberrietan

Umore Ona elkarteak futbito txapelketa mixtoa antolatu zuen abenduaren 22an, futbolaren inguruan herrian giroa sortzeko helburuarekin. Zortzi taldek eman zuten izena, 7 herrikoak eta bat Hernanikoa. Denera 50 lagun aritu ziren eta aipatzekoa da bi talde, talde mistoak zirela. Irabazleak Emapale taldekoak izan ziren. Ondoren parte hartzaile guztiak Umore Ona elkartearen afaria egin zuten giro ederrean. Unai Miranda, Umore Onako presidentea aipatu digunez, «balorazio orokorra oso positiboa izan da eta aurrera begira egeberri inguruan txapelketa azkar hau ohitura bihurtzea gustatuko litzaiguke».

HERRI BATZARRA → URTARRILAREN 11N EGIN ZEN

Merkuko bidean euriteek eragindako kalteak moldatuko dira

Ibiurtik herrira oinezkoentzako bidea ere egokituko da Plazaolarekin lotzeko

Juana Mari SAIZAR

Urtarrilaren 11ko herri batzarrean hainbat gai interesgarri eta garrantzitsu jorratu zituzten. Alde batetik, herriko argitegian konsumo baxuko bonbilak probatzeko asmoa dagoela azaldu zuten, baita ne-guan egin behar diren erreketa, desbroze eta auzolanak aztertu ere.

2013ko tasak eta zergak ez dira igoko, baina egoera ekonomikoa txarra dela-eta, eta dirulaguntzak desagertu direla kontuan hartuta,



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Errege Magoak etxez etxe ibili dira

Urtero legez eta hust egin gabe, Errege Magoak etxez etxe ibili ziren herriko umeak eskatutako opariak banatzen. Argazkian ikus ditzakegu Meltxor, Gaspar eta Baltasar bere laguntzaileekin.

aurten egingo diren inbertsioak hauek dira: Merkuko bidean euriteek eragindako kalteak, erorketak hain zuzen, moldatu eskollerak edo

harri-lubetak eginez. Kasu honetan, Nafarroako Gobernuak inbertsioaren %55 ordainduko du. Ibiurtik herriraino oinezkoentzako



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Etxeberriko karobie azaldu da

Udala herriko ondarea berreskuratzeko lanean hasi da eta horien artean, karobi hau azaldu da, Etxeberriko karobie, egin zutenean bezalaxe dago, ez baitzuten behin ere karea bertan egin, nahiz eta harria ekarri Ulizar parajetik.

bidea egokituko da, Plazaola natur bidearekin lotura egon dadin. Honetarako udalak %53ko dirulaguntza jasoko du Nafarroako Go-

bernutik. Etxebizitzaren proiektuak aurrera egingo balu, eta diru sarrrak handitu, beste inbertsio batzuk egingo lirateke.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

Hilabete txuria
merkealdia

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

BAZTAN

GIZARTEA → 50. URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK

Mende erdia ospatzen hasiko da Baztandarren Biltzarra elkarte

Argazki erakusketa eta Gaztelu taldea herriz herri ibiliko dira

TTIPI-TTAPA

Baztandarren Biltzarra elkartearen 50. urteurrena gogoratuz haibat ekitaldi antolatuko dira datozen asteetan. Alde batetik, Mena eta Zalduaren artxibok erabiliz argazki erakusketa osatu da eta herriz herri erakutsiko da. Urtarrilaren 26 eta 27ko asteburuan Almandozko eskola zaharrean izanen da ikusgai. Otsailaren 23 eta 24an, berriz, Azpilkue-tako batzar gelara eramane da. Horretaz gain, Baztandarren Biltzarrekin bat eginez, Gaztelu taldeak kontzertuak eskainiko ditu han hemenka. Lehena urtarrilaren 27an izanen da, igandean 11:00etan Iruritako parrokiari. Otsailaren 24an, berriz, Zigako parrokiari eskainiko dute emanaldia.

Otsailaren 4an, astelehenarekin, Santa Ageda bezperako kalejira antolatu du Baztandarren Biltzarra Elizon-

don, 19:00etan abiatuko da. Aitzinerago, ekitaldi gehiago ere presatuko dituzte.

Chopin eta Xenpelar ikuskizun berean

Ikuskizun berezia eskainiko dute urtarrilaren 20an, igande arratsaldeko 7:00etan Arizkunenea Kultur Etxean. Bi arreba. Chopin eta Xenpelar izenburupean ariko dira Xabier Lizaso pianojolea eta Andoni Egaña bertsolaria.

Erretereriako Andre Mari Abesbatza

Erretereriako Andre Mari Abesbatzak ahots kontzertua eskainiko du urtarrilaren 26an, larunbatean 20:00etan, Elizondoko parrokiari. Etnografia Museoko Lagunen Elkarteak eta Kasino Elkarteak antolatu dute emanaldia.

Barrura begiratzeko leihoak

Barrura begiratzeko leihoak dokumentala eskainiko da urtarrilaren 27an, igande arratsaldeko 7:00etan Arizkunenean, Baztandarren Herrirak antolatuta.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Quevedok irabazi du Eguberrietako erakusleho lehiaketa

Bertan merkatarien elkarteak Eguberrietan antolatutako erakusleho lehiaketa Elizondoko Quevedo Ferretereriak irabazi du. Bigarren postua Jaimerena ileapaindegaiendako izan da eta hirugarrena Malkorra gozotegiaendako. Elkarteko jabetxe batean bi lagunendako afaria izan zuten saritzat. Argazkian, Miguel Quevedo eta Mikel Jaimerenaren artean ageri da sariak banatu zituen Jaime Faoga, Bertan elkarteko presidentea.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Barberenak laugarren aldiz irabazi du Elizondoko San Silvestrea

Alberto Barberenak laugarren aldiz irabazi zuen abenduaren 31n burututako Elizondoko San Silvestre lasterketa. 12 minutu eta 11 segundu behar izan zituen lasterketa akitzeko eta orain arte egin diren lau edizioetan bera izan da nagusi. Rafa Maritxalar bigarren izan zen 9 segundura, Unai Barazabal hirugarren 15 segundura eta Iñaki Telletxea laugarren, minutu erdira. Emakumezkoen artean, Noemi Martirena izan zen bizkorrena (17:03), Eva Zabalegi bigarren 34 segundura, Izaskun Zabaleta hirugarren 46 segundura eta Elena Beltran de Guevara laugarren, minutu batera. Inoiz baino korrikalari gehiago izan zen, 305.

Dierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Hurriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORNOZ · MUGAIRI

homeopatía
KONTSULTA BERRIA · ELIZONDON
JUAN MARTIN-BALLESTERO
Mediku Homeopata
Tfnoa: 833 767 609 · Santiago, 58 behea · Elizondo

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

KULTURA → EGUN ERDIKO ORDEZKAPENA

Liburutegi publikoa Eguberrietan goizez bakarrik irekia egotearen zergatia azaldu du Balleko Etxeak

Nafarroako Gobernuaren jokaera salatzen du

TTIPI-TTAPA

Baztango liburutegi publikoa Eguberrietan goizez bakarrik egon da irekita. Udala eginahalean aritu da bertako langilea falta delarik, ordezkapenak egin ahal izateko lan poltsa egin nahian, baina Nafarroako Liburutegi Publikoaren Saretik ez du laguntzarik jaso. Izan ere, komenigarria da jakitea, Nafarroako Liburutegietako langile guztiak Nafarroako Gobernuaren eskutik daudela, ez udalaren eskutik, hortaz, berariai dagokie liburuzainaren ordezkaria izateko.

Liburuzaina ez dago elarik (eri, oporretan...) liburutegia ireki ahal izateko lan-poltsa egin na-

hi zuela adierazi zion Baztango Udalak Nafarroako Gobernuko liburuzainen elkarteari, eta gai honetaz mintzatzeko Nafarroako Gobernuko Liburutegi Publikoaren Sareko arduradunarekin mintzatu ziren. Berak erran zenez, oporrak ordezkatzeko ardurua Udalena zen, eta bertze tokietan hori egiten zutela eta, Liburutegia ixtea ere udalaren esku zegoela.

Liburutegia ixtea azken aukerazenez, lan-poltsa egiteko asmoz berriz ere Nafarroako Gobernuko Liburutegien sareko arduradunarekin mintzatu ziren udal irdezkariak 2011ko urte hondarrean, «probak diseinatu eta zuzentzeko teknikari bat igorriko ote ziguten galde-tuz». Erantzuna baiezkoa izan zen, baina azterketa eredia prestatzeko eta euskartzeko astia behar zute-



UTZITAKO ARGAZKIA

Enplegu babestuko langileek markesina egin dute Arizkun

Enplegu Babestuan ari diren zazpi langileek autobusa esperatzeko markesina egin dute Arizkongo Bergara auzoan. Cesareo Soule harginaren formakuntza eta aholkuak segituz, lan dotorea egin dute.

la eta 2012an berriz deitzeko erranez.

Euskaraz egiteagatik proben eguna gibelatu egin beharko zela adieraztearekin bat, Udalak eginiko lan-poltsa horretan proba gaudituko lukeenak ez lukeela liburutegia kudeatzeko baliabiderik izanen erran zuten Iruñetik (mailegu sistema, ordenagailuko klabeak...), ez baita Nafarroako Gobernuaren eskutik ariko lanean. Beraz, eta aipatutako guztiarengatik, Baztango udalak bere gain hartu du aurten ere liburuzainaren ordezkaria, baina bizi dugun egoera zein den

kontuan hartuz, egun erdiko ordezkapena eginen du egun osokoa beharrean.

Nafarroako Gobernuaren jokaera salatu

nahi du Baztan Balleko Udalak, eta aldi berean Baztango Liburutegi publikoko erabiltzaile diren guziei barkamenak eskatu dizkiete.

2012KO DIRULAGUNTZAK

Irabazi asmorik gabeko gizarte proiektuak lagunduko ditu Udalak

TTIPI-TTAPA

Orotara, 8100 euro banatuko ditu Baztango Udalak talde, kolektibo eta irabazi asmorik gabeko elkarten artean, 2012ari dagozkien ekitaldiengatik. Aurrekontuak onartu berri dituzte eta horren arabera zortzi izanen dira onuradunak: Bidelagun (1.863 euro), Eguzkilore (1.377 euro), Xauli (1.215 euro), Anasaps-Dizdira (1.053 euro), Elikagai Bankua (891 euro), Anfas (729 euro), Afina (567 euro) eta Itsusi (405 euro).

FANTXIKE Jaime Urrutia, 15 · ELIZONDO · 948 580 312 www.fantxike.com

HAURREN ARROPETAN %50 eko deskontuak

INAUTERIETARAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

ENKARGUAK HARTZEN DITUGU

KUADRILENTZAKO PREZIO BEREZIAK

Gainontzeko arropetan %20tik %50 arteko deskontuak

BAZTAN

GIZARTEA → HONDAKINEN KUDEAKETA

Konpostagailu komunitarioak jarriko dituzte Arraiozen, Anizen eta Elizondoko Baztan Berrin

Esperientzia pilotuak abiaraziko ditu Balleko Udalak

TTIPI-TTAPA

Etxeetako hondakin organikoak murrizteko eta konposta egiteko Europako zuzentarauari jarraiki, azkeneko urtean Baztango udalak etxeetan konpostagailu indibidualak paratzeko kanpaina azkarra egin du eta, horrela, dagoeneko 168 dira etxeetan konpostatzeko eman diren konpostagailuak. Alta blokeetan bizi diren herritarrek edo lurrik ez dutenek ere ekimenean parte hartzeko erakutsi duten interesari erantzunez, udalak Nafarroako hiri-hondakinaren partzuergoarekin proiektu bat egin eta konpostagailu komunitarioak ezartzeko esperientzia pilotua egingen du. Saiakera Elizondoko Baztan Berrin, Arraiozen eta Anizen egingen da, 6.000 euro inguruko kostua izanen du eta Nafarroa osoan esperientzia aitzindari izanen da, bertze mankomunitateetarako baliogarria izan daitekeen bidea erakutsiko duena. Hau guztia egiteko aipatu herri eta auzoe-

tan bilera informatiboak egin ditu udalak eta bertan, udalak, teknikariek egitasmoaren nondik norakoen berri eman du, denetara 70 herritar bildu dira, eta horietaz gain ekimenean parte hartzeko interesa dutenek urtarrilaren 15a artio zuten izena emateko aukera. Konpostagailu komunitarioa hamazazpi familia-unitaterendako da eta toki bakoitzean bi konpostagailu jarriko dira, horrela, lehena betetzen delarik egostera utzi eta bertzea betetzen segitu ahal izateko. Lortuko den konpostarekin erabiltzaileek erabakiko dute zer egin: etxeetako lorontzietarako banatu, auzoko jardinerako erabili... Gainerakoan egitasmoan parte har-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Paxaka txapelketan berriz ere Irurita nagusitu da

Azken urteetan bezala, Iruritako bi talde aurrez aurre izan ziren Baztan Erreka-koko XIII. paxaka txapelketaren finalean ere. Azkenean, Irurita BK (Egoitz Prim, Igor Urrutia eta Joseba Urtasun) 9 eta 8 irabazi zion Irurita Fri (Jagoba Ramos, Jexux Etxenike eta Iñaki Zabaleta). Hirugarren posturako lehian ere Irurita G (Xabier Bazterrika, Mitxel Etxenike eta Oskar Urrutia) nagusitu zitzaion Oizeri (Iker Bereau, Ugutz Zelaieta eta Lander Mendiola). Finala orekatua eta ona izan zen, txapelketa osoko partitidik hoberena eta jende aunitz bildu zen abenduaren 22an Iruritako Aranabia pilotalekuan. Txapelak eta sariak Maite Oteizak (Baztan Balleko zinegotzia) eta Maribel San Josek (Iruritako alkatesa ohia) banatu zituzten. Txapelketa bukatzeko, Iruritako Inezture elkartearen afaria izan zen. Txapelak eta sariak banatu ondoren, Laxoa Elkartek antolatutako 1.000 euroren zozketa egin zen. Zerbaki sariduna 0896 izan zen eta berehalaxe agertu zen zerbaki horren jabea: Iruritako Jesus M^a Bidegain.

tuko duten familiei organikoa ongi bereizteko gidaliburua eta hondakin ontzia emanen zaie; halaber, konpostagailuak egonen diren tokian informazio-panelak paratuko dira. Toki bakoitzak erabiltzaileen artean hautatuko arduraduna izanen du eta bera arduratuko da ongi konpostatzen ari direna begiratzeaz. Bertzalde, etxeetako organikoak

urtsuak direla kontuan hartuta, inausketetako hondarrak xehatu eta material estrukturtzaille idor gisa konpostontzietarat gehituko da. Horretarako Tasubinsarekin solastatu eta he-mendik aitzinerat inausketetako hondar guztiak xehatuko dituzte. Modu horretan toki bakoitzeko konpostgunean xehatutako material idorrek ontzia bat izanen

da. Bertzalde konpostgunea non paratu erabiltzaileen artean adostuko da. Arraioz eta Elizondoko Baztan Berriko kasuan gehienak blokeetako biztanleak dira. Anizen berriz jendea etxeetan bizi da, hortaz, herriko etxe guztiek konposta egitea proposatuko da; pausu hori emanenez gero, Aniz Nafarroako lehen herrietakoa litzateke.

ANTXITONEA
HOTEL

24 ingela bainuarekin • Apartaketa
Aste gutxiago gela guztiak • Hain modukoa eta TD
Gela berriz azaldu eta berriz berrikatuak

Brasilio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

ttipi txartela

IPINGI
%10
DESKONTUA
30€tik gorako
gastuan

OSPAKIZUNAK → DATA OFIZIALAK BAINO LEHEN

Oronozko inauteak eta Erratzuko Gizakundea ospatuko dira

Urtarrilaren 24tik 26rako asteburuan Oronozen eta 26an Erratzun

TTIPI-TTAPA

Baztanen ere, data ofizialei aurre hartzen dieten inauteriak izaten dira. Oronoz-Mugairin, erraterako, urtarrilaren 24tik 26ra ospatuko dituzte.

Urtarrilaren 24an, ortzegun goizean gosaria eginen dute Pierresenea ostatuan. Gosaldu ondotik, Oronoz-Mugairiko baserrietan barna ibiliko dira gazteak. Frantxisko akordeolariarekin. Afaria, berriz, Pierresenea ostatuan eginen dute.

Hilaren 25ean, ortzileria goizean gosaria Pierresenea ostatuan eginen dute. Gosaldu ondotik, mozorroak herriko etxeetan barna ibiliko dira eta afaria Pie-

rresenea ostatuan eginen dute.

Hilaren 26an, larunbatean ere Pierresenea ostatuan gosalduko dute. Goizean herriko azken etxeak bisitatuiko dituzte. Eguerdi aldera, Zozaiara joanen dira. Zozaiako buelta egin ondotik, mozorroak herriko ostatueta barna ibiliko dira.

Gauero bezala, Pierresenea ostatuan afaletu ondotik dantzaldia izanen dute Frantxisko akordeolariarekin.

GIZAKUNDE ARIZKUN ETA ERRATZUN

Erratzuko Kultur Elkarteak eta Jo ala Jok antolatuta Gizakunde eginen da hilaren 26an. Larunbat arratsaldeko 4:30ean Arizkunen merendua hartu eta mozorrotu ondotik, Erratzurat kalejiran joanen dira. Jantziloren epaiketa eginen dute bertsolariarekin eta ondotik afaria elkartean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eguberrietako saskia eman du Baztango Kirol Taldeak

Baztango Kirol Taldeak Eguberrietako sariak banatu ditu. Lehenbiziko saria, saski dotorea, Arizkungo Salva Tamayo Tabernak eskuratu du, bera baita 6.058 zenbakiaren jabea. Leire Mugiro arizkundarrak saldu zion. Bigarren saria, Oier Urrutia erratzuarrak saldutako 6.674 zenbakiari egokitu zai, baina oraingoz ez da saridunik agertu.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Epaitu ondotik, erre eginen dute aurten ere Jantzilo Erratzun.


Martiko
Pol. Zalen, s/n.
31790 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Herrikoen erakundeak eta enpresak


DENDA ORDUTEGIA:
asteleheneretik
ortziralera
08:00etatik
17:00etara

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Asegurua
- Autos, etxebizitza, istripu eta biotza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baserrit, bordia, pinu, etab... salmenta eta alikatuak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

SENPERE

KULTURA → ABENDU ERDITSUAN ESTREINATU ZEN LUHUSON

Ainaren historia erakusten du Pascale Lazkano koreografoaren ikusgarriak

Nafarroa eta Aragoitik Zuberorat espartinak lantzerat joaten ziren neskek ziren

Franck DOLOSOR

Urraska, Goazen eta Taupadak ikusgarrien ondotik, Pascale Lazkano dantzariak ikusgarri berria muntatu du Zarena Zarelako konpainiarekin: Ainarak. Munduko lehen gerla baino lehen Nafarroa eta Aragoitik Zuberorat joaten ziren neska gazteen istoriak aipatzen ditu euskal dantzaren urratsetan eta piska bat antzerkian oinarritua den ikusgarri berriak. Neska hauek bortxaz joaten ziren ezpartinak lantzerat Zuberorat eta mendi elurtuen barna ibili behar zuten Pirineotako alde batetik bertzerat. Dena den, Pascale Lazkanoren erranetan beti ala-

iak ziren. Emazteen historia hauek biziki gus-tukoak ditu koreografoak eta omenaldia egin nahi izan die. Gertakari horiekin abiatuz, ikusgarri oso osoa asmatu du: urratsak, jantziak, argiak eta musika, bertzeak bertze Benoit Lamerain eta Maitena Duhalde musikariekin.

Oinak aski arinak ditzuten 13 neska eta 7 mutil dabilta taulen gainean, hauen artean senpertar andana. 2011ko udazkenean hasi ziren proiektu berri hau apailatzen Pascale Lazkanoren zuzendaritzapean. Aldi honetan, Pascale bera ez da ikusgarriaren agertzen argipean baina gazteei laguntza handia ematen die ilunpean, aldageletan. Horixe, urduritasun handia sentitzen du maiz, baina oro har, den dena behar den bezala iragaiten dela dio. Momentu biziki atseginak bizitzen ditu Pascalek gazte guzi horiekin. Sei urte-tan hasi zen euskal dant-

zak ikasten bere sorterrian, Getarin, Lapurdi kostaldean eta orain biziki gustatzen zaio bere zaletasuna bertzei irakastea eta transmitzea. Egunero oinak mugitzen zaizkio beti eta bertsulariek hitza beti gogoan duten bezala, harek urratsak ditu buruan. Urratszaluekin Zarena Zarelako konpainia Ipar Euskal Herri osoan eta baita ere Ameriketako Estatu Batuetan aritu da ikusgarriak eskaintzen.

Abendu erditsuan, Luhuson egin zen ikusgarri berriaren estrenaren ondotik, orain Ainarak erakutsiko dute Hazparden urtarilaren 26an eta Miarritzen martxoaren 2an. Ondotik, ikusgarri gehiago eskaintzeko prest da Zarena Zarelako konpainia, eta plazerrekin joanen litzateke hego Euskal Herrirat...

Anai Artea

Anai Artea elkarteak *Frantziaren esku-har-*



UTZITAKO ARGAZKIA

13 neska eta 7 mutil dabilta taulen gainean.

zea euskal gaztakan ize-na duen liburuaren aurkezpena baliatu du Frantziako gobernamenduak aspaldiko errepresioaren bide beretik segitzen duela salatzeko eta Aieteko eta Baionako bake forumeri bere sustengua erakusteko. Euskal Herriarentzat Parisek datarman politikan Estatu arazoak agintzen duela argi du Anai Arteak. Bere ustez aldaketa gutti da eskuina ala ezker-ra delarik agintean. Horren lekuko norabide berren doazen kolpeak, izan dadin 80garren hamarkadan hasi zen erre-

fixiatuen kontrako jazarpena edo berriki espainaratu izan den Aurore Martinen afera. Ipar Euskal Herrian azken 40 urteetan izan diren arrastatzeen bilduma agertzen da liburu berri hontan. Gertatu den historia erreberitzeko edo gazteeri hemen gertatu dena ezagutarazteko balio du liburuak. Bertze lagun batzuen artean Mixel Mendiburu herritarrak ere moldatau du lan hau. Euskal Herriari buruzko liburu gehienak bezala Lekua bi saltegiatan dago Anai Artea elkartearen bilduma berria.

Gure Haragia
Nuestra Carne

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

www.facebook.com/ttipi.ttapa

BORTZIRI
UNSION ANAIK
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

Egin zaitez
ttipi-ttaparen
harpidedun

(0034) 948 63 54 58

GIZARTEA → LUR BERRI GELAN

Presoen aldeko afaria eginen da hilaren 26an

Txartelak 20 eurotan salgai daude

Joana GUERENDIAIN

Sarako herrira elkar-teak, bere presoen aldeko afaria antolatuko du heldu den urtarrilaren 26 ean, Lur berri gelan. Besta arratsaldeko 5ak aldean hasiko da, plazan gairako bertso triki poteo batekin gaztetxean hasiko dena gero Herriko etxeko edantegitik pasako da trinketea bukatzeko. Afarirako txartelak 20 eu-

rotan salgai dira, usaia-ko salmenta tokietan: Herriko etxeko edantegian, Katakun, Xoko onan.

URTE ZAHARREKO ELGARRETARATZEA

Urtero bezala, urtats gauaren kariatara sara-tar multzo polit bat bil-du da plazan, gutti go-ra behera 40 bat per-sona, presoei beren sustengua erakusteko. Oroitaraztekoa da ela-karretaratzeak hilabe-teko azken ostirala gu-ziz egiten direla arra-tseko 7etan.

Zumba iniziaketa

Joan den zenbakian aipatu bezala Zazpiak bat taldeak zumba in-ziaketa bat proposatu-ko du Lur berri gelan. Iniziaketa hori bi igan-dez eginen da, urtarril-aren 20an eta 27an. Sa-ioek ordu eta erdi irau-nen dute eta Nadège Pi-naqui erakasleak era-manen ditu.

Izen emaita egune-an berean eginen da 8 euroren truke. Saiok arratsaldeko 3:30ean hasiko dira eta bi kur-tsoetan parte hartzea ez da beharrezkoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Urtarrilaren 26ko presoen aldeko afaria iragartzen duen kartela.

ZUGARRAMURDI

KIROLA → APOSTUA

Ordu eta 14 minututan egin du Juanok etxetik Atxuriarat gan-etorria

Pilota apostuan, berriz, 20 tantuko aldea aprobeztatuta Manuk irabazi zion Txuari

Margari eta Koro

Gure herri hau beti-tik franko "apostularia" izan da, eta usaia ez galtzeko, gan den abenduaren 22an bi apostu egin ziren: goizean egin zenean, ea Juano gai-


zen bere etxetik Atxuria kaskoko gan torria oren bat terdiz egitea zen. Goizeko 10:00etan abiatu zen, eta apostua aise irabazi zuen, oren bat eta hamalau minu-tutan egin baitzuen (46 minututan igan eta 28tan jautsi).

Arratsaldekoan be-rriz, Manu eta Txuaren arteko pilota partida izan zen: Txuiak 20 tanto abantaila eman zizkion Manuri, eta gainera ez-kerreko besoakin aritu zen. Huntakoan Manuk irabazi zuen, 40 eta 23.

Sorginak eta lezea National Geographic-en

Abenduaren erdi al-dean "National Geo-graphic Channel"-eko-ak grabaketak egiten aritu ziren lezean eta museoan. Europan izandako epaiketa go-gorrenei buruzko hain-bat kapitulu prestatzen ari dituzte.

18 herrialdeko 18 is-torio kontatuko dituzte, "Bloody tales" edo "kontu odoltsuak" ize-na duen programan.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Juano kontent, bere marka erakutsiz.

Hemen grabatutakoa, Holanda eta Poloniare-kin lotuko dute, progra-ma berean, sorginen

gaiean oinarrituz. Segu-raski udaberri aldera ikusten ahalko da pro-grama.

ESKUALDEA

GIZARTEA → INOIZ IZAN DEN KOPURURIK HANDIENA

1.367 langabaturekin bukatu da 2012. urte beltza

Azaroan baino 42 langabetu gehiago ziren eta 2011ko urte bukaeran baino 125 gehiago

TTIPI-TTAPA

2012. urte bukaeran 1.367 langabetu zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak, azaroan baino 42 gehiago (%3,17ko igoera) eta 2011ko abenduaren 31n baino 125 gehiago eta 2010eko urte bukaeran baino 195 gehiago. Inoiz izan den kopururik handienera dago langabezia eskualdean.

2012ko abenduko



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Industria arloan igo egin da langabetu kopurua.

gorabeherak kontuan hartuz, 383 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, horietatik 39 bakarrik mugagabeak.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 606 lagun daude langabezian, azaroan baino 40 gehiago. Adin tarte

horretako emakumeen artean 609 langabetutan mantendu da kopurua, azaroan bezala. 25 urtez beheitiko gizasemeen artean, aldiz, 92tik 95era igo da langabetu kopurua eta adin tarte horretako emakumeen artean 58tik 57ra pasatu dira lanik gabe daudenak.

Zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten, baina abenduan 874tik 870era jaitsi da langabetu kopurua. Industria arloan, aldiz, 190etik 216ra igo da langabezian dauden kopurua. Eraikuntzan ere 176tik 188ra igo da langabetu kopurua. Nekazaritzan 5

DATUA

195

LANGABETU

gehiago ditu eskualdeak duela bi urte baino

langabetu gehiago daude, 32, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean 61 lagun daude langabezian, azaro hondarrean baino 3 gehiago.

2012 ERE URTE BELTZA

2011. urtea 1.200 langabaturekin bukatu ondotik, 2012ko urtarrean egitan ilbeltza izan zen eta 107 lagun gehiago izan ziren langabezian, 1.307. Otsailan 1.316ra igo zen (+9); martxoan 1.288 (-28); apirilean 1.258 (-30); maiatzean ere 1.258 (=); ekainean 1.178 (-80); uztailean 1.187 (+9); abuztuan 1.190 (+3); irailean 1.242 (+52); urrian 1.286 (+44); azaroan 1.325 (+39) eta abenduan 1.367 (+42).



Juan Bautista IRAZOKI NESPRIAS
ASKETA ABESBATZAKO ZUZENDARIA
Iruñean, 2013ko urtarrilaren 5ean

Urte askoan izan zaitugu gure kantuen gidari beti umorez, beti gogotsu adarra joaz elkarrizkari bizirik eutsi nahi genioke zure hitzen oihartzumari asketako oilarrak luzaro jarraitu dezan kantari.

Zenbat emanaldi eta entsaio zenbat kontu eta algara pazientzi haundiz gure ondoan ibiliz hona eta hara. Juan Bautista, izan zoriontsu, zurekin zorretan gara beti gu guztion bihotzaren barruan egongo zara.

Bere arimaren aldeko meza urtarrilaren 20an izango da Leitzako Mikel Deuna elizan, goizeko 11:00etan.

ASKETA ABESBATZA



Luciano IRIARTE AGUIRRE
1956/10/07-2011/01/20
II. URTEURRENA

Atta, zure irrifar polita gogoratu, gure ondoan zaudela sentittuz, zure ilusio eta ametsekin jarraituz aurrera segituko dugu beti zuri maitatuz.

ZURE EMATZEA ETA ALABAK

Rekordatorioak egiten ditugu

ttipi-ttapa

Koskontako Bidea, 7-1
LESACA | 948635458

EZKONTZAK

Manuel Salsas Duran eta **Aixa Mendoza Valls**, Mallorkakoak Iturenen, abenduaren 24an.

Tamara Diaz Bringas eta **Oretes Hurtado Fernandez**, Madrilekoak Donezteben, abenduaren 20an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Loiara Ugalde Agerre, Zugarramurdikoa, abenduaren 19an.

Juan Maria Larin Zubieta, Goizuetakoa, urriaren 9an.

Arhane Zubieta Moratinos, Lesaka-Mathieu Eneko Endara Plagnes, Sarakoa, abenduaren 13an.

Elena Goia Mariñelarena, Doneztebekoa, abenduaren 16an.

Ariane Cubero Cacho, Elizondokoa, abenduaren 11n.

Iradi Salbotx Larralde, Elizondokoa, abenduaren 25ean.

Aner Mariezkurrena Maiz, Arantzakoa, abenduaren 27an.

Aurkene Iturralde Ezkurra, Sunbillakoa, abenduaren 30ean.

Enaitz Agesta Petrirena, Sunbillakoa, abenduaren 29an.

Delia Cornejo Ibarra, Iturengoia, urtarrilaren 2an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Francisco Etxebeste Etxebeguren, Arantzakoa, abenduaren 19an, 83 urte.

Matilde Sagues Otondo, Arizkungoa, abenduaren 19an, 91 urte.

Basilia Mendiberri Arriada, Lekarozkoa, abenduaren 24an, 72 urte.

Bautista Irisarri Arrijuria, Elizondokoa, abenduaren 25ean, 71 urte.

Julian Zelaieta Ganbarte, Doneztebekoa, abenduaren 25ean, 74 urte.

Cipriano Sansiñena Irisarri, Etxalarakoa, abenduaren 28an, 90 urte.

Lorenzo Etxeberria Larnagarai, Iruiritakoa, urtarrilaren 3an, 49 urte.

Maria Rosario Bikondo Urrutia, Arizkungoa, urtarrilaren 5ean, 84 urte.

Luis Etxegarai Martikorena, Berakoa, urtarrilaren 6an, 27 urte.

Francisca Arretxea Ibarra, NARBARTEKOA, urtarrilaren 7an, 101 urte.

Bautista Irazoki Nesprias, Berakoa, urtarrilaren 5ean, 82 urte.

Anastasia Etxebere Inda, Elizondokoa, urtarrilaren 7an, 89 urte.

Pello Lakar Jaurena, Arizkungoa, urtarrilaren 7an, 54 urte.

Jeanne Almandoz, Sarakoa, abenduaren 25ean, 83 urte.

André Paul Albert Chevrolet, Sarakoa, urtarrilaren 2an, 88 urte.



Esteban ZABALETA ZABALETA

Leitza, 2012ko urtarrilaren 15ean
II. URTEURRENA

*Gizon zintzo eta leiala
maitasuna zenuen nagusi
inork espero gabe
joan zinen ihesi
bi urte pasa arren
ezin zaitugu ahantzi
gure bihotzetan
egongo zara beti.*

**Elkar berriro topo egin arte, besarkada bat.
AMAIA, JON ANDER, ITXARO, UXUE, AMA, ANAI-ARREBAK ETA
ILOBAK.**



VI. URTEMUGA Bera, Arantza, Lesaka

Duela urte bete inguru hasi ziren Leire Telletxea (Bera, 1986) eta Negu txakurra txakurkrosa praktikatzeko. Eskualdean oso ezaguna ez den arren, geroz eta hedatuagoa

dagoen kirola da. Mushingaren modalitate bat da baina berezitasun batekin, lera tiraka eraman beharrean pertsona txakurrari segika korrika joaten baita, bien artean taldea sor-

tuz. Leire eta Negu, GuHau taldean aritzen dira lasterka eta hasi berriak izan arren, Etxebarrin berriki jokatu den txakurkros lehiaketan bigarren postua eskuratu dute.

Leire TELLETXEA | Txakurkrosean dabilen beratarra


«Jakin-mina dutenei probatzera animatuko nieke merezi du eta»

E. IRAOLA

Korrika egitea lehenetik ere gustatzen zitzaionez, txakurraren bitartez ezagutatutako lagun batzuek animatu zuten Leire Telletxea txakurkrosa praktikatzera eta «hagitz gustora» dabiltzala dio. Pluralean hitz egiten du, bi baitira kirola praktikatzeko dutenak; Alaskan Malamute arrazako Negu txakurra eta bera.

Txakurkrosaren helburua, «txakurraren arnesa soka batez gure gerrikora lotuta korrika egitea da, txakurra gure aitzinean tiratuz joaten delarik». Kirol honetan aritzeko txakurrak urte bat beteta eduki behar duela azaldu digu eta «Negu urtea berriki bete duenez, hasi berriak gara». Lasterketetan oraintxe hasi dira «denboraldia azaro ingurutik martxo bukaerara» baitoa, baina, aurretik ere ari dira lanean. «GuHau taldean aritzen gara eta haiekin lehenagotik hasi ginen entrenatzen» erran digu.

Txakurra eta biak lasterka ibiltzeko entrenamendu bereziak behar direla dio «lasterketa hauek mendian izaten direnez, elkarrekin mendira korrika egitera joaten gara astean hiruzpatalu aldiz». Lasterketak nahiko motzak izaten dira, 8 kilometro ingurukoak horregatik «tarte-



UTZITAKO ARGAZKIA

Leire Telletxea eta Negu txakurra Etxebarriko lasterketan, bigarren postuan sailkatu ziren.

ka serieren bat sartzen dute. Horretaz gain astean behin taldekoekin elkartu eta denak batera entrenatzen dugu».

Txakurra eta jabearen artean harreman estua behar dela aipatzen du «harreman ona behar da dudarik gabe, txakurra gogoz kontra, umore txarrez... eramaten baduzu kontrako emaitzak lortzen dira eta». Hala ere, taldekoekin entrenatzean edo lasterketan iristean txakuraren erantzuna hobea izaten da «hainbertze txakur elkarrekin lasterka hastean txakurra pila bat motibatzen dira eta behar bezala tiratzen dutenean korrikalariari aunitz arintzen zaio bere lana». Aldapa be-

ERRENDIMENDUA

«Hainbertze txakur elkarrekin lasterka hastean txakurrak pila bat motibatzen dira eta behar bezala tiratzen dutenean korrikalariari aunitz arintzen zaio bere lana».

ERRENDIMENDUA

«Korrika bakarrik egitetik nahiko desberdina da txakur batek tiraka ematen duen sentsazioa».

heiti ordea, kontu handiarekin ibili behar da «txakurrak bere indar osoz tiratzen du eta pixkanaka poliki bezalako aginduak ematen ikasi behar da».

Hasiera «hagitz polita izan da». Hasieran gehien beldurtzen zuena «txakurrak lasterketetan nolako portaera izanen zuten zen». Izan ere, «tentsio momentuak bizitzen dira hainbertze elkartzen garenean». Lehenengo lasterketaren ondotik «gustora geratu nintzen».

Aunitz zabalitzen ari den kirola da «lasterketa eta txapelketa aunitz daude, Gipuzkoako Liga, Espainiako Kopa... Urrutira joan gabe lasterketak egiten dira Jaizkibelen, Oiar-

tzunen, Errenteria... eta asteburu aunitzetan izaten ditugu».

Abenduan Etxebarrin lehenengo txakurkros lehiaketa antolatu zen, Leire eta Neguren lehenengo lasterketa ere bazen «zortzi kilometroko ibilbidea egin behar zen mendiz eta egia erran hagitz gustora gelditu ginen emaitzarekin». Gaineratzen du, aukera polita dela «zure afizio bera duen hainbertze pertsonekin egon ahal izatea».

Kirol honen alderdirik ederrena «mendia, korrika eta txakurrak gustatzen bazaizkizu aunitz disfrutatzen den kirola dela» da bere aburuz. Batez ere, «korrika bakarrik egitetik nahiko desberdina da txakur batek tiraka ematen duen sentsazioa».

Zailena berriz, «agian, maldan beheiti niri oraindik ematen didan beldur hori gainditzea. Lasterketa batzuk hagitz teknikoak dira eta horiek oraindik errespetu handia ematen didate» aitortzen du.

Leireren ustez, kirol hau gure eskualdean «nahiko ezezaguna da». Horregatik, gonbitea luzatu nahi izan du «jakin-mina dutenei probatzera animatuko nieke, merezi du eta. Txakurrak eta korrika egitea gustatzen bazaie txakurkrosaren munduan gauza aunitz daude ikusteko».

PILOTA → ERREMONTEAN FRONTOI LABURREKO ERREGE

Gorka Urtasunek hirugarren aldiz irabazi du Eguberrietako txapelketa

Errege eguneko finalean iruritarrak 30-23 irabazi zion Zeberio II.ari

TTIPI-TTAPA

Gorka Urtasun iruritarrak hirugarren aldiz segidan irabazi du Eguberrietako frontoi laburreko buruz buruko erremon-te txapelketa. Urtarrilaren 6an Labriten jokaturako finalean 30-23 irabazi zion Zeberio II.ari eta txapel hau hirutan irabazi duen lehen erremon-telaria da.

Piloteoan partida berdindua izan zen finala, baina sakean hobe moldatu zen Urtasun. 15-12koa arte alde ttikiak izan ziren,



UTZITAKO ARGAZKIA

Gorka Urtasuna txapelarekin kontent, Errege eguneko finalaren ondotik.

bizpahiru tantukoak, baina 20-14 aitzindu zen iruritarra. 24-22ra hurbildu zen Zeberio II, baina 27-22 eta 28-23koa-

ren ondotik, azken bi tantuak Urtasunek egin zituen. Baztandarrek giro ederra paratu zuten frontoian eta harmailak

bete xamar ageri ziren. Jaialdiko lehen partidari, Ezkurra II eta Olazar Doneztebeko lehen-gusuek 30-15 irabazi

zieten Etxabe II eta Zubizarreta gipuzkoarrei. Hirugarren partidari, Urriza eta Barrenetxea IV.ak 40-38 irabazi zieten Endika eta Etxeberria III.ari.

MASTERS TXAPELKETA URRIZARENZAT

Aitzineko bi edizioetan Ezkurra izan zen irabazlea, baina aurten Urriza nagusitu da Oriamendi enpresak antolatutako Masters txapelketan. Iruñeko aurrelariak 30-18 irabazi zion urtarrilaren 5eko finalean Julen San Miguel doneztebarrari. Honela, udan buruz buruko txapelketa lehen aldiz eta duela aste pare bat binakakoa laugarren aldiz irabazita, urteko txapel ofizial guziak irabazi ditu Urrizak.

UTZITAKO ARGAZKIA

Beran azterketa egin zuten kenshi gaztetxoak.



KENPO KAI → BERAN ABENDUAREN 15 ETA 16AN EGIN ZIREN

200 bildu ziren kenpo kaiko azterketetan

Bortzirriak, Baztan eta Malerrekan hainbat kirolari ari dira modalitatean

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 15ean eta 16an egin ziren Berako Toki Ona kiroldegian kenpo kaiko gradu edo gerriko aldaketako azterketak. 200 bat kenshi (kirolari)

aurkeztu zirenez, azterketak bi egunez egin behar izan zituzten.

Abenduaren 15ean 150 bat neska-mutikoen txanda izan zen eta biharamonean 50 kenshi heldu aritu ziren gerrikoaz aldatzeko proba eta ariketa ezberdinak landuz eta denek maila altua erakutsi zuten. Aipatu behar da Bortzirriak, Malerreka eta Baztanen gero eta indar gehiago hartzen ari dela arte martzial hau eta hainbat eskola sortu direla herriz herri.

Azterketetako epaimahaian Shihan Vidal, Nafarroako Karate Federazioko Kenpo saileko zuzendaria; Modesto Ordoki, sail horretako Graduen arduraduna eta Etxalarko eta Elizondoko irakaslea; Koro Iriarte, sail horretako haurren arloko arduraduna eta Igantzi eta Berako irakaslea eta Ana Mitxelena, Urdazubiko irakaslea eta 2012an Espainiako borroka txapelketan azpitxapeladun izandakoa izan ziren.

urtarrilak 17-31

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Kontzertuak



ELIZONDO | 2013.01.20

Chopin eta Xenpelar batera, Egaña eta Lizasoren eskutik

Xabier Lizaso pianojoleak eta Andoni Egaña bertsolariak *Bi arreba*. *Chopin eta Xenpelar* emanaldia eskainiko dute Arizkunenean.

Bertsokak



BERA | 2013.01.18

«Irausiazu bidia, Xabier» bertso trama Kultur Etxean

Onintza Enbeita, Jon Maia, Julen Zelaia eta Xabier Silveira jarriko dituzte lanean Garaxi Taberna eta Patxi Castillo trama-gileek: *Irausiazu bidia, Xabier*.

Mendi ateraldiak



BERA | 2013.01.27

Beratik Goizuetara Agerra Mendi Taldearekin

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Agerratik edo Agiñatik oinez, baita autobusez Goizuetara joateko aukera eskainiko du Agerra Mendi Taldeak.

Urtarrilaren 25etik 27ra. Xehetasunak 20. orrian.

ARIZKUN-ERRATZU

Gizakunde

Urtarrilaren 26an Arizkundik Erratzurat. Xehetasunak 39. orrian.

Solasaldiak

ELIZONDO

Krisiari herritik buelta emanez

Urtarrilaren 17an *Krisiari herritik buelta emanez* solasaldian Sakanako esperientziak ariko da solasean Joseba Garmendia EHUko ekonomia irakaslea eta Sakantzen sareko kidea. Sozioekonomiako herri bilguneak antolatatu du 19:00etan Arizkunenean.

BERA

Nola egin konpost

Urtarrilaren 22an *Nola egin konpost* hitzaldia eskainiko da 18:30ean Beralandetan.

DONEZTEBE

Imsero eta adintuen bidaiei buruz

Urtarrilaren 17an Imsero eta adintuen bidaiei buruzko hitzaldia antolatatu dute Doneztebe Udalak eta Lesakako Barceló Bidaiak. 19:00etan lehengo erakusketa aretoan.

Ospakizunak

LESAKA

San Anton eguna

Urtarrilaren 20an ospatuko da San Anton Eguna Endara auzoan. Xehetasunak 12. orrian.

Zinema

ELIZONDO

Barrura begiratzeko leihoak

Urtarrilaren 27an Ba-

Erakusketak

ALMANDOZ

Baztandarren Biltzarrak 50 urte

Urtarrilaren 26 eta 27an Baztandarren Biltzarraren 50. urtemugako argazki erakusketa eskola zaharrean. Mena eta Zaldia artxiboak.

Kontzertuak

ELIZONDO

Ahots kontzertua

Urtarrilaren 26an Errenteriako Andra Mari Abesbatzak kontzertua eskainiko du parrokiaren 20:00etan. Etnografia Museoko Lagunen Elkarteak eta Kasinoak antolatua.

IRURITA

Baztandarren Biltzarrak 50 urte

Urtarrilaren 27an Gaztelu taldeak kontzertua eskainiko du parrokiaren 11:00etan, Baztandarren Biltzarraren 50. urtemugako ospakizunen barnean.

BERA

Joseba Irazoki & Lagunak

Urtarrilaren 25ean

kontzertua eskainiko dute Joseba Irazoki eta bere lagunek 22:00etan Kultur Etxean. Sarrera: 6 euro.

Emanaldiak

ELIZONDO

Bi arreba. Chopin eta Xenpelar

Urtarrilaren 20an *Bi arreba*. *Chopin eta Xenpelar* emanaldia eskainiko dute Xabier Lizaso pianojoleak eta Andoni Egaña bertsolariak Arizkunenean 19:00etan.

BERA

Haurrentzako ipuin kontalaria

Urtarrilaren 25ean *Galtzagorriak dantzan* ipuina kontatuko du Ixabel Milletek 3-5 urte bitartekoentzat 18:00etan liburutegian.

Inauteriak

ELGORRIAGA

Mozorro besta asteburuan

Urtarrilaren 18 eta 19an. Xehetasunak 27. orrian.

ORNOZ-MUGAIRI

Gazteak etxex etxe

Urtarrilaren 24tik 26ra. Xehetasunak 39. orrian.

AURTITZ-ITUREN-ZUBIETA

Joaldunak harat-honat

Urtarrilaren 24tik 30era. Xehetasunak 22. orrian.

LEITZA

Atsauratuen pesta

Urtarrilaren 25etik 29ra. Xehetasunak 18. orrian.

SUNBILLA

Karroza ikusgarrienak

PROPOSAMENA

ESKUALDEA

Edozein trapu ona da mozorroa jantzeko

Ailegatu da gurera mozorro besta. Aurtiz, Ituren eta Zubietako joaldunen harat-honata ikusiko dituzte hiru herrietan egunotan, baina tartean mozorroek ere bere lana egiten dute, jendea zirikatuz. Leitzaan ere atsauratuen pesta izanen dute eta Sunbilla, igandeko karroza desfilea baino aunitzez gauza gehiago izanen dituzte. Inauteriak hemen ditugu. Ongi pasa!



rura begiratzeko leihoak dokumentala eskainiko da Arizkunenean 19:00etan, Baztango Herrirak antolatua.

LEITZA

Zinema denboraldia

Urtarrilaren 18 eta 20an *Lo imposible* filma ikusgai. Ostiralean 22:30etan eta igandean 17:00etan eta 19:30etan.

Bertsoak

BERA

Bertsotrama

Urtarrilaren 18an *Irausziazu bidia*, Xabier bertso trama: Onintza Enbeita, Jon Maia, Julen Zelaieta eta Xabier Silveira. 22:00etan Kultur Etxean.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleak

Urtarrilaren 20an Beintza-Labaienera ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleak (07:30).

Urtarrilaren 27an Elizondo-Urballo-Harri Kulunka-Askota-Elizondo ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleak (08:00).

BERA

Agerra Mendi Taldea Beratik Goizuetara

Urtarrilaren 27an Beiratik Goizuetarako ohiko ateraldia antolatuko du Agerra Mendi Taldeak. Izen ematea urtarrilaren 23a baino lehen 948 630362 telefonora deituz (gaeuz).


ZUGARRAMURDI

Atxuria mendi taldea San Antonera

Urtarrilaren 20an Lesakako San Antonera ateraldia egingen du Atxuria mendi taldeak.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Ez naiz ni

KARMELE JAIKO

Elkar, 2012

Zerbait falta dute, zer den ondo ez badakite ere. Gaztetasunaren azken izpiez gozatu nahi dute batzuek, lehengo garai ustez eder haiek berreskuratu; esperientzia berriak bilatuko dituzte beste batzuek, modu batean zein bestean, edo hondatzen hasitako harremanak biziberritzen saiatu. Bizitzaren erdialdean daude denak, eta horrek eragiten dien ezinegonean beren tokia aurkitu nahi lukete. Pertsonaia batek dioen bezala, zailena ez baita zahartzea, zahartzen hastea baizik. Ipuin liburu berri bat dakarkigu Karmele Jaiok, hamabi istorioz osatua. Aurrekoetan bezala, giza harremanetan sortzen diren arrakaletan erreparatzen daki egileak, begirada zorrotz baina amultsu batekin; aurrekoen aldean, baina, sakonagoak dira kontakizunak, argumentua gehiago garatuz, eta abertsagoak dira pertsonaiak, haien bizitzen hainbat alderdi eta xehetasun erakutsiz; betiko sentiberatasunez, baina baita berria den umore fin batez ere.

Musika



Gose 5

GOSE

Jangura Produkzioak, 2012

Gose taldeak bart, gaur eta bihar zure begien Goseak ikusi ditu. Goseak Gose dakar eta honnek diskoak prestatu dituenero, izugarriko inurri izurritea jarri du dantzan sabelaren sakonean. Lan berri bat eta urduritasuna gorputzaren atal guztietan. Inurriak eta artegatsu, bi hitz emankor abestirik borobilenak lortzeko asmoarekin eta hauek egia bihurtu, Gose taldeak belarrira abesten duelako eta horrek gusta ematen du, mingain bertze mingainaren ahoan jolasten den bezala. Gose taldeak berotasuna eskaintzen du, entzulea beti bero-bero egon dadin euren musikarekin. Gose taldea (Arrasate, Gipuzkoa, 2004) berriro bero da. Gosek berriro berotuko zaitu patxada guztiarekin. Egon lasai, musika kontratu bat adostu du entzulearekin berotasunak ez dezan gradurik gal, ez mailarik, ez gogorik, ez maitasun-gorrotorik. Gose taldearen bosgarren diskoak, aitzineko guztietan bezala, zenbakia du izenburu, orain bosgarrena da eta laranja.

Internet



Kontzertu eta zuzeneko emanaldien berri

MUSIKAZUZENEAN.COM

Aunitz dira, kontaezinak, Euskal Herriko luze zabealean antolatzen diren kontzertuak eta zuzeneko emanaldiak. Lur eremu aberatsa da gurea zuzeneko musikaren alorrean. Asteburuetan metatzen dira emanaldi gehienak, baina, edozein egunetan bada aukera zuzeneko emanaldi bat bizi bizian dastatzeko. Ez da izanen Europa osoan, ez mundu osoan akaso, Euskal Herria bezalako lur eremu txiki batean bezalako zuzeneko musika eskaintza topa daitekeenik. Gaztetxeak, areto komertzialak, herriko festak, taberna txikiak, festibal handiak... Ugariak dira zuzeneko emanaldiak programatzen dituztenak. Emanaldi ugari izan arren, askotan zaila izaten da hauen inguruko informazio biltzea. MusikaZuzenean egitasmoa, hutsune hori betetzeko asmotan dator, musikazale ororentzako, emanaldien berri zehatza eta osatua eskainiz.

Nire aukera



Iruene ZABALA
Goizuetako aterpekoa

«Behorak ikusteko aitzakiarekin mendira ateratzea gustatzen zait»

Goizuetako Zubimuxu aterpea kudeatzeak eta familiak denbora libre askorik uzten ez badiote ere, libre duenean «mendi-an ditugun behorak ikusteko aitzakiarekin umeeekin buelta bat ematea eta pixko bat ibiltzea» gustatzen zaio Irueneri. Aterpea gehien bat asteburuetan betetzen denez, astegunak erabiltzen ditu horretarako. Oporraldi luzeagoetan, berriz, «ez dut kanpora ateratzeko ohiturarik, egia esateko, generalean herri inguruan ibiltzen gara, mendian, familia bisitatuz...». Aukera izanez gero, nozbait Amerika aldera joatea gustatuko litzaioke, «igual fantasia bezala da, baina westerneko rodeoren bat ikustea edo zaldiak... familia ere badugu han, eta esaten digute joateko beraien rantxoak ikustera, baina ez gara oraindik ailegatu». Irakurtzea ez zaio gehiagi gustatzen, bai ordea idaztea. Orain, lanarengatik Interneten gehiago ibiltzen da, «saltsan, publikitatea nola egin, behorak erakusten du...».

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONOZ-MUGAIRI. Bi bizitza salgai, mobleztatuak daude. Berogailua, igogailua, trastelekua eta bajerarekin. 17 milio pezeta eta 18 milio pezeta/106.000 eta 112.000 euro. ☎ 948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdietan

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

LESAKA. Etxebizitza haundi bat salgai. 4 logela, egongela haundi bat, sukaldea, komuna eta terrazarekin. Prezio oso ona. 126.000 euro. ☎ 677 356461 edo ☎ 628 936991.

UZTEGI. Etxebizitza salgai 240.000 eurotan. Errentan hilabetean 600 euroren truke, erosteko aukerarekin. Lau solairu, 90m² bakoitzean. Logela nagusiak, 16m²ko bainugela du jacuzzi eta tximiniarekin. Beste hiru logela ere baditu tximiniarekin. 1000 litroko gasolio depositua, erradiadoreak. Teilatuaren egoera ona. 15 minutura 5000 m²ko herri-lurra, 400 m²ko lur eremua errentan hartzeko aukerarekin. ☎ 657 709722.

BERA. Pisu salgai. Egongela, 3 logela, sukaldea, 2 bainugela (bat bainerarekin), trastelekua, igogailua, berogailua eta balkoiarekin. ☎ 681 017423.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

DONEZTEBE. Zazpigarutze arroan pisu berria salgai. ☎646 762383.

SARRIGUREN (Iruñea). Pisu salgai oso prezio onean, 150.000 euro. 90m², berogailua, 3 logela, 2 bainugela, sukalde, komuna, trasteleku, igogailu, terraza eta garaiea. 3 urte, oso argitsua, toki lasaia eta bizitzen jartzeko prest. ☎ 679 928331.



LESAKA. Albistur karrikan adosatua salgai. 140m² bi pisutan banatuak. 115 m²-tako garaiea eta txokoa. 50 m²-tako terraza eta 60 m²-tako jardina. Prezio oso onean. 4 logela, bi komun, sukaldea eta egongela handia. ☎ 678 616475.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

LESAKA. Bittiri kalean 90 metro²ko pisua errentan ematen da. Sukalde handia, egongela, 3 logela, komuna, trastelekua eta bi balkoi eder ditu. Bizitzeko prestatua dago. ☎ 636 116021/ ☎ 639 855284.


ORONOZ-MUGAIRI. Pisu berria errentan ematen da. Mobleztatua: sala-sukaldea, logela, komuna, garaiea eta trasteroa. 3 solairu, oso argitsua. Berogailua, igogailua, igerilekua, padeleko pista eta frontoia. Prezioa: 380 euro. ☎ 661 898970.

LESAKA. Albistur karrikan, 3. solairuko bizitza errentan. Igogailuarekin, eguzkitsua eta argitsua. Hiru logela, sala, terraza handia, sukaldea eta trasteroa bertan. Bi bainugelarekin bat osoa. Parki-

na dauka. 550 euro hila-betean. ☎ 669 704686.

DONEZTEBE. 2 logelako pisua errentan ematen da. Berogailua eta trastelekuarekin. Argitsua eta hagitz toki onean. Bizitzen jartzeko prest. ☎661 905009.

SUNBILLA. Pisu errentan edo salgai. 2 logela, sukaldea, eta egongela tximiniarekin. Dena hornitua, kalefakzioa, balkoia, terraza, igogailua, garaiea eta trastelekua etxeko goiko solairuan. Kalitatezko eraikin berria eta inguru lasaia. Prezio onean. ☎628 473539.



LESAKA. 110 m²ko pisua errentan emateko. Etxe osoak kanpora ematen du eta bi balkoi eder ditu. 3 logela, egongela handia, sukaldea, komuna eta trasteleku handia. Mobleztatua eta berogailuarekin. ☎ 670 319380/ ☎ 607 769519.

DONEZTEBE. Pisu errentan emateko. Toki onean, prezio interesgarria. ☎626 178330.

BERA. Pisu errentan ematen da, Agerra auzoan; hiru logela, berogailua eta igogailuarekin. ☎659 963960.

DONEZTEBE. Zazpigarutze karrikan 110 m²ko pisua errentan ematen da. Sukalde eta egongela mobleztatua ditu. 3 logela, 1 mobleztatuta, 2 bainugela, berogailua eta igogailuarekin. ☎ 615 756282.

LESAKA. Pisu bat errentan ematen da herrian bertan. Argitsua da eta 100m²ko azalera du. Sukalde eta egongela handiak, 4 logela, 2 komuna, 3 balkoi, mobleztatua eta berogailuarekin. Prezioa: 550 euro. ☎638 320774.

BERA. Pisu errentan ematen da. 3 logela, komuna, egongela, sukaldea eta garaiea, 80m²ko azalera du. Egoera onean eta mobleztatua. ☎606 810125.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

Leitza eta Goizuetako bikote gazte batek **base-rrri** edo **borda** bat hartuko luke errentan, bertan bizitzeko. ☎ 660 990 836.

BASERRIADATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**

(Abenduaren 28tik urtarrilaren 4ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 47 € (+2,00)

Zerri gizena
1,310 € kilo. (-0,005)

Zerramak:
0,820€ Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,13

1.koa 3,87

2.koa 3,71

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,34

1.koa 4,06

2.koa 3,92

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 150,00

idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 130,00

idixkoak 165,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,80/7,90

8-10 kilokoak: 5,80/6,20

LANA
eskariak

SUNBILLA. Nazioarteko idazkaritza ikasketak dituen emakumea edozein lanetarako eskaintzen da. Ingelesa, frantsesa, italiar eta aleman apur bat dakizki. ☎ 669 671977. Emakumea edozein lanetan merke xamar aritzeko eskaintzen da (sulkalde laguntzailea, etxetan...) ☎ 948 580231.

MALERREKA. Asteburuetan lan egiteko emakumea eskaintzen da: bentetan, jatetxeetan... Frantsesa eta ingelesa badakizki. ☎ 679 210910.

ANIMALIAK
salgai

Oilo eta oilar enanoak salgai, 7 eurotan. ☎ 626 644420.

ANIMALIAK
oparitzeko

Bi txakurkume hauek oparitzen dira. ☎ 626 335398.



MOTORRAK
salgai

Gas Gas 300 Enduro motorra salgai. 2000 urtekoa. Salneurria 1200 euro, negoziagarriak. ☎ 689 436643.

Yamaha 660 Grizzly quadsa salgai. Egoera arras onean dago. ITVa 2014an pasatzeko. Gasolina. 2006 urtekoa. Prezioa: 4500 euro. ☎ 695 716894.



Galloper Exceed autoa salgai. 2000 urtekoa, 148.000 km ditu. Arras egoera onean. ☎ 660 965058.



Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 65.000 km. Arras ongi zaindua. ☎ 628 572273.

ZERBITZUAK
denetarik

BAZTAN, MALERREKA eta **BORTZIRIAK.** Egur loteak egin, materialerako arbolak bota eta ateratzen dira, prezio oso onean. ☎ 600 789034.

DENETARIK
salerosketak

ORONOZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta harritza. Etxera eramaten da. ☎ 676 242520.



SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehe-tua. ☎ 659 867287 / ☎ 699 461394.



SANTESTEBAN Tailerrak

CLIO III DYNAMIQUE DCI 90 CV - kilometro 0 **K.M.0**

KANGOO 1.5 DCI 70 CV 42.000 km **6.800€**

ETA GAINERA

- Renault Sedan 1.5 DCI 105 CV - 2006 urtekoa
- Laguna Privilege 2.2 DCI 105 CV - 2005 urtekoa
- Hyundai Galloper 2.5
- Espace Privilege 3.0 DCI auto
- Megane II Business 1.5 DCI 105 CV

MEGANE II EXPRESSION 1.5 DCI 105 CV - 2010 urtekoa - 43.000 km

DOZETZEBENKO RENAULT-en KOTXE IA BERRITAN SEKULANDO ESKAINTZAK



AURTIZKO OSTATUAREN ERRENTAMENDUA

Iturengo Udalak 2012ko abenduaren 13an egin osoko bilkuran, erabaki zuen lehiaketa publikoa egitea, Iturengo Aurtiz auzoan dagoen *Aurtizko Ostatu* errentan emateko, bertzeak bertze, baldintza hauei jarraikiz:

- Errentamenduan iraupena: 5 urte, bertze 5 urte gehiago luzatzeko aukerarekin.
- Hileko errenta: 500,00 euro gehi BEZa. Horixe izanen da hasierako prezioa.
- Lehiaketan baloratuko dira ustiapen proiektua eta eskaintza ekonomikoa.
- Eskaintzak aurkezteko epea: eskaintzak Iturengo Udaleko idazkaritzan aurkeztuko dira, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko HAMABOST laneguneko epearen barnean, horretarako onetsitako baldintza administratiboen plegua adierazten den gisara.
- Behin-behineko fidantza: 500,00 euro.

Klausula administratibo partikularren plegua interesatuen eskura dago udal idazkaritzan.

Ituren, 2013.01.09
Alkatea, María José Bereau Baleztena

inprenta lanak egiten ditugu
ideiatik hasi eta etxean izan arte

ttipi-ttapa

1.000 ale **+92€**

8.000 ale **+160€**

1.000 A4 **+88€**

1.000 ale **+107€**

948 63 54 58
sultak@ttipi-ttapa.net

BAZTAN IKASTOLAK
MAISU-MAISTREN LAN POLTSA OSATZEKO DEIALDIA EGITEN DU

- Haur Hezkuntzako espezialitatea duten irakasleak
- Ingelesa espezialitatea duten irakasleak edo Lehen Hezkuntzako irakasleak ingelesko B2, C1 edo Hizkuntz Eskolako Maila Aurreratuak dutenak
- Eskara orria eta meritoak aurkezteko epea eta lekua: Urtarrilaren 15etik 30era
- Unitate didaktikoak edo proiektuak aurkezteko epea: Urtarrilaren 31tik 15era
- Baztan Ikastolako Lehen Hezkuntzako egolitzan -

Deialdiaren oinarriak: www.baztangoakastola.eu
baztan@baztangoakastola.com helbidian eskatuz
INEMiko web orrialdean | "navarra.es" orrialdean

BAZTAN IKASTOLA
BIZKAIKO LEHEN HEZKUNTZA

Mendinueta - ELIZONDO | baztan@baztangoakastola.com

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko brekea; 4) www.ttipi.net bitartez



ANDRES ALTZUGARAI CONTRERASEK urtea betekoko du urtariraren 17an. Zorionak eta muxu handi bat Villaconejos eta Almandozko familien partez!




Zorionak sorgintxo! Ongi pasa zure eguna eta prestatu belarri tiki horiek! Muxu haundi haundi bat matte zattu-gun guztien partez! Muuuuaa...!!



AROA MARTIN ALDUNTZIN beratarrak urteak bete ditu abenduaren 27an. Muxu handi bat aitona, amona, osaba eta... partetik.



ANDER etxalararrak urtariraren 21ean 3 urte betekoko ditu. Aunitz urtez, muxu haundi bat familia guztiaren partez eta egun eder bat pasa rubio!



Legasako IRAIA, IZEI eta AINTZANEK, gure hirukoteak, urteak betetzen ditu urtarirlean. Aunitz urtez familia guztiaren partez. Paaa



AMATXI BITORRIK urtariraren 16an jada 86 urte bete ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik baina bereziki zure ilobak diren Iraide eta Garaineren partez. Amatxi prestatu berendu goxoa guretako. Muxuk



Sunbillako IRAIDE eta GARAINe brujitak urtariraren 19an 4 urte betekoko dituzte. Aunitz urtez atatu-amatxi, izeba Nerea, lehengusua Ibai eta nola ez attato eta amattoeren partez. Ongi ongi pasa eguna eta zuen bazkari, berendu edo afariaren zain gelditzen gara. Muxuak



Sunbillako bi bitxo hauek urtariraren 19an 4 urte betekoko dituzte. Aunitz urtez familiakoen partez. Ongi pasa eguna eta disfrutatu. Muxu!




IZARO LARRALDE IBARRAK ilbeltzaren 26an, 11 urte betekoko ditu. Zorionak etxekoien partez. Muxu!



Aunitz urtez ERATSUNGO LOURDES, NAROA eta BENATEK urtariraren 18 eta 31n urteak betekoko dituzte. Muxu haundi bat etxeko guztien partetik. Berendu goxoa prestatu.



Gazteluko YAIZA GONZALEZ GAMIOK urtariraren 13an 9 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partez.



hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa www.ttipi.net en

argazki soila 4 €

argazki bikoitza 8 €

bidizkarian internetan

Argi ikusi

hartu betaurrekoak!

nize www.nize-d.com

D. Eredua

Etorkizunerako matrikula ezazu

Antsoain-Ezkaba Arantzako Eskola Arbizuko Herri Eskola Areso-Nazabal Atarrabia-Atargi Aunitz-Aunitzeko Eskola Aurizberri-Auzperri Barahain-Añaitz Bera-Ricardo Baroja Berriozar-Mendialdea II Betelu-Araxes Burlata-Ermitaberri Doneztebe-San Miguel Elizondo-San Francisco Javier Erro-San Esteban Estella-Lizarrar-Remontval Etxalar-Landagan	Etxarn Aranatz-San Donato Gares-Puente la Reina Gares Garrantza-Oresagako Ama Goizueta-Andres Nabarte Xaito Igantzako Eskola Inua: Amaur Ikastola (Iturrumal) Bernart Ebekopare (Txantrea) Buztinburi (Buztinburi) Elorri (Mendillorri) Hegoalde Ikastola (Arrosadia) Mendigoti (Mendillorri) Pabi Larrainzar (Ritxapea) San Frantzisko (Aldo Zaharra) Sanduzelai (San Jorge) Inurtzun-Atakondoa Ituren Palanpa	Iturmendi-Arrano Beltza Lakuntza-Luis Fuentes Larrainzar-Inuita Gotzaina Leitza-Erleta Lekunberri-Ibarberri Lesaka-Irain Luzaideko Eskola Olazti-Domingo Bados Saldias Otsorta Sarrigurenko Eskola Sunbilako Eskola Urdiaingo Herri Eskola Uharteko Virgin Blanca Zizur Nagusia-Ereniega Zubin-Xabier Zubin Zugarramurd-Urdazubi eta Baztango Herrietako Eskolak
---	---	--

AURREZTU BULEGOKO materialean

TXARTELAK

Kartulina berezia 400gr. + 2 alde koloretan + BEZa barne

500 94€

bisita txartel

100 txartel 74€ 250 txartel 90€ 1000 txartel 116€

Koskontako bidea 7, 1 | **LESAKA** | 948 635 458
kulturkari@ttipi.net | www.ttipi.net | www.kulturkari.com

berotu goxatu INFORMATU



LIDERRAK
GURE ESKUALDEAN
eta baita azterketa
egiterakoan CIESeK
Nafarroa Garaiko
mendialdean
hartu duen 111
udalerrien
eremuan ere

Ttipi-Ttaparekin
zure iragarkiak
eragin haundiagoa du



Sexuaren arabera
GIZONAK %44,60
EMAKUMEAK %55,40



Adinaren arabera
14-24 URTE %14,30
25-34 URTE %19,50
35-44 URTE %20,60
45-54 URTE %17,30
55-64 URTE %16,70
+ 64 URTE %11,60



Ikasketa mailaren arabera
IKASKETARIK GABE %03,20
LEHEN IKASKETAK %10,40
LANBIDE HEZIKETA %32,80
BATXILERGOA %21,90
UNIBERTSITATEA %31,70



ttipi txartelarekin

beti irabazten da!

deskontuak + zozketak + aldizkaria musu-truk

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefoncan

581. ALEKO IRABAZLEAK

- * ONINART KAMISETA
M^a Jose Arribilaga | AMAIUR
- * EREIN 2 LIBURU
Batxinak eta Hariaz beste
Lupe Mujika | LESAKA
- * AQUARIUM 2 SARRERA
Esther Mentaberi | BERA
- * PUPU ETA LORE DVDa
Itxarone Zinkunegi | ELGORRIAGA
- * GALTZAGORRIE! TO, INAXITO!
LIBURUA ETA DVD
Maritxu Tomasena | URDAZUBI
- * URTXINTXA ESKOLA
PUNPALAPAN CD + DVD
Txaro Elizagoien | ETXALAR

zozketak



KAMISETA BAT
Onddo ta panto
www.onddotapuntia.com



MARTIKO LOTEA
Martiko
www.martiko.com

deskontuak

CITROËN

SANSIÑENA TAILERRA

ELIZONDO | %5 e/o bidaketatzen

Ostargi optika

BERA
%5eko deskontua
produktu guztietan

libreria

nafarpres

liburudenda

ELIZONDO
%10 liburu eta ikas materialetan,
teatu liburuak eta bidetok izan ezik

**ELBETEko
POSADA**

FLORITZ
%10 kartan, 30etik gorako gastuan

bixkiak

KIROL ETA MODAKO
urriop denda

LESAKA | %10eko deskontua

**ETXARTE
bitxi-denda**

LESAKA | %10eko deskontua

BERNARDITA / GAIU ZORRATZAN

AQUARIUM



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumss.com

ibaizabal



2 LIBURU
Ibaizabal argitaletxeak
www.ibaizabal.com

Lanku



DVD eta CDa
Lanku
www.lanku.com

urtxintxa
eskola



PUNPALAPAN CD + DVD
Urtxintxa eskola
www.urtxintxa.org

ttipi-ttapa

Ko-kontakotua bidea 7, 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 Fax 948 635 457
info@ttipi.net www.ttipi.net